


txintxarri



Talo eta txistorra artean, Gabonetarako prest

San Tomas azokan bilduta eman diote ongi etorria neguari lasarteoritarrek / 5-12

TXINTXARRI



Jostailuondoa

JOSTAILUAK EMATEN DITUEN ZUHAITZA,
EGUBERRI HAUETAN, URBILEN.


Eguberri hauetan zatozte Urbilera zuhaitz solidarioa ezagutzera eta **behar duten umeei jostailu berri bat utzi diezaiozue** abenduak 31era arte.

Zure solidaritatea eskertuz, Urbilbox **aisia planen zozketan parte hartuko duzu**. Dena urbil.es-en deskubritu ezazu eta **opari esklusiboen zozketan parte hartu** ezazu gure **sare sozialetan**.



urbil.es





2018 zoriontsua
opa dizuegu.
Eguberri on!



Kalitatea dastatu

Gure ogiak:

Cristal

Molde Cristal

Parisien

Txabola

Mendiko

Txapeldun

Leña ligth

Espelta

Vital

Artoa

Salud

Artoa zerealekin

Aleman

Molino

Verde

Espelta zerealekin

Ogicol

Kurkuma, intxaurreak eta mahaspasak



Bila zabiltzan hori... ziur hemen aurkituko duzula!



*Txintxarriko langileek
Eguberri eta urte berri on opa dizkizuegu*

**Hurrengo
zenbakia**

txintxarri

Urtekaria
Informazio gehiago txintxarri.eus
orrialdean edo sare sozialetan

txintxarri

www.txintxarri.eus

Argitaratzailea

Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4
20160 LASARTE-ORIA
G-20407557

Erredakzioa

Nerea Eizagirre, Iñigo Gonzalez,
Maddi Noriega eta Adrian Garcia.

Publizitatea

Arantxi Zulaika.

Laguntzaileak

Unai Muñoa, Gorka Lasa,
Ane Labaka, Mailu Arruti,
Asier Odriozola, Gorka Alvarez,
Jexux Artebe, Maider Galardi,
Mikel Yarza, Nerea Segura eta
Aizpea Amas.

Informatikoa

Asier Aztiria.

Administrataria

Nerea Garziarena.

PUBLIZITATEA

Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4
Tel.: 943 37 14 48 (106)
publizitatea@ttakun.eus

EGOITZA NAGUSIA

Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4
Tel.: 943 37 14 48 (104)
WhatsApp: 688 68 35 10
txintxarri@txintxarri.eus

Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

Lege Gordailua: SS-513/94

ISSN: 1134-0053

Tirada: 7.800 ale

BABESLEA



LASARTE-ORIA
UDALA

LAGUNTZAILEAK



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



Gipuzkoako Foru Aldundia

Euskara sustatzeko akordioak sinatu dituzte

Lasarte-Oriako Udalak diruz lagunduko ditu Buruntzpe, Landaberri eta Oriartekide gurasoen elkarteak, euskararen erabilera bultzatzeko programak landu ditzaten. Guztira, 41.507 euro jarriko ditu udalak elkarten hainbat egitasmo finantzatzeko

Txintxarri

Lasarte-Oriako Udalak, Jesus Zaballos alkatearen bidez, Buruntzpe, Landaberri eta Oriartekide gurasoen elkarteekin hitzarmena ondu du, eta guztira, 41.507 euro bideratuko ditu euskara sustatzeko programetara. Jon Antxordoki Euskara zinegotzia ere izan da sinadura ekitaldian, gurasoen elkarteetako ordezkariekin batera. Diru horrekin euskara sustatzeko programak bultzatuko dituzte ikasleen eta gurasoen artean. Hain zuzen, hiru elkarte horiek elkarlanean aritzen dira helburu horrekin.

Adostu dituzten programen artean *Irakutrezin*, *Esazu*, *Irria* eta *Irrintzi* aldizkariak daude, eta *Hezitzaileek asko egin dezakete!* saioaren aurpegi ezagunak.

Buruntzpek 7.992 euro jasoko ditu (10.392 euroko programak ditu). Ondorengo ekimenak finantzatzeko dituzte horrela: *Hezitzaileek asko egin dezakete*; *Ikusi*, *ikasi eta hasi* gurasoen jolasen ikastaroa; gurasoentzako euskarazko eskolak; euskarazko aldizkariaren irakurketa; eta *Esazu* euskarazko aldizkaria.

Bestalde, Landaberriko gurasoen elkarteak 9.845 euro



Gurasoen elkarteko ordezkariak eta udalekoak, ituna sinatzen. TXINTXARRI

jasoko ditu (14.715 euroko programak ditu). Ondoko egitasmoak finantzatzeko ditu udalak: *Irria* aldizkaria; *Irrintzi* aldizkaria; pertsonaia ezagunen bisitak; *Hezitzaileek asko egin dezakete*; eta gurasoentzako euskara eskolak.

Euskara eskolak

Azkenik, Oriartekide 23.670 euroekin lagunduko du udalak

(23.670 euroko programak ditu). Ondorengo egitasmoak finantzatzeko ditu diru horrekin: *Lagunarteko hizkerarekin jolasean*; *Jolas dezagun euskararekin*; Elemeleka 3. eta 4. DBHn eta 1. eta 2. Batxilerren; *Irakutrezin* aldizkaria; euskarazko aldizkariaren irakurketa sustatzeko programa; eta pertsonaia ezagunen bisitak.

Udalak 500.000 euro gastatzeko, bost proiektu

Hurrengo urteko aurrekontuaren 500.000 euro zertan gastatu erabakitzeke prozesua martxan da, eta hurrengo bi asteetan herritarrek bost proiekturen artean erabaki beharko dute. Ondokoak dira proposamenak: bizikletak garbitzeko gune bat; txakur kakak garbitzeko

kanpaina bat; komun publiko bat Zabaletan; herriko argiteria hobetzea; eta kaleak garbitzea. 1etik 5erako puntuazioa eman beharko dute lasarteoriarrek, eta 2018. urtean udalak puntu gehien jasoko dituen proposamenak egingo ditu, 500.000 diru sorta agortu arte. Abenduaren 18tik hasita, hilaren 29ra arte izango dute Lasarte-Orian erroldatuek bozkatzeko aukera.



TXINTXARRI

Finalaren ingurukoak, Alberdirekin

Ttakunek eta Bertso Eskolak antolatuta, Bertsolaritza Txapelketa Nagusiko finalaren ingurukoak errepasatu dituzte Ttakunenean, Uxue Alberdirekin. Irakurle Txokoa hitz egin du Alberdik, *Janis Joplin* bere azken eleberriri buruz. Ondoren eztabaidatu dituzte finalaren nondik norakoak. Jende ugari bildu da Alberdi entzuteran elkartean.

Odol ematea bultzatzeko akordioa egin du udalak

Udalak eta Gipuzkoako Odol-Emaileen Elkarteko kideek hitzarmena sinatu dute, eta, honenbestez, elkarteak urtean 2.000 euro jasoko ditu, hiru urtez. Horrela, Odol-Emaileen Elkarteak egiten duen lana babestu eta finantzatzeko du udalak, odol ematea sustatzeko.

Aitzol Iriondoren aurkako epaiketa hasi da Parisen

Aitzol Iriondoren aurkako epaiketa asteartean hasi zen, Parisen. 2007an Frantziako enpresa batean lehergaiak egiteko erabil daitekeen erregaia lapurtzea leporatzen diote, Aritz Arginzoniz elorriarekin batera. Agiri bat irakurri du Iriondok epaiketan, "gizartearen eskakizunen" berri emateko.


Zatoz gure jaki goxoak dastatzera!

Pintxoak
Razioak
Ogitartekoak
Sandwich-ak
Hanburesak
Plater konbinatuak



Zorionak eta Eguberri on!!

Ola kalea 2, Lasarte-Oria • Tel. 943 36 27 68



SUGATE

SUKALDEAK

- Gremioen koordinazioa
- Ordenadore bidezko diseinua
- Konpromisorik gabeko aurrekontuak
- Horma- armairuak
- Marka guztietako etxetresna elektrikoak



Eguberri zoriontsua opa dizuegu!

Pintore Kalea 5 - Lasarte-Oria
Tel. 943 36 14 71
sugatesukaldeak@gmail.com - www.sugate.net



Lasarte-Oriako kirolaren historia eta hainbat bitxikeria ezagutu zituzten herritarrek diaporamari esker. TXINTXARRI

Akordeoiak eta argazkiak kontatu dute

Joan den urtean egin legez, argazki diaporama ederra aurkeztu du Zero Sette akordeoi orkestrak, eskusoinuz lagunduta: Lasarte-Oriako kirolaren historia ezagutu dute herritarrek Manuel Lekuona kultur etxeko auditorioan, musikaren bidez

Txintxarri

Akordeoiak eta argazkiak kontatu zuten larunbat arratsaldean Lasarte-Oriako kirolaren historia. Joan den urteko arrakastak hauspotuta, Zero Sette akordeoi orkestrako kideek argazki-diaporama benetan ederra muntatu eta erakutsi dute Manuel Lekuona kultur etxeko auditorioan.

Lasarteoriatarrek ez dute hitzordua galdu nahi izan, eta eserleku gutxi utzi dituzte hutsik. Atzoko eta gaurko irudiak ikusten, eta eskusoinuen doinuez

lagunduta, herriko kirolaren historia ezagutu dute.

Modalitate asko

Hainbat bloketan banatu du Zero Settek emanaldia. Denera, 25 kirol modalitate bildu dituzte diaporaman: saskibaloia, bola eta toka, areto futbola, xakea, hipika, futbola, automobilismoa, boxeoa, golfa... Ez da bakar bat ere falta izan. Argazkiak ikusi bitartean, ikusentzuleen harridura keinuak eta zurrumurruak etengabeak izan dira, askok momentu eta bizipen

eder asko ekarri baitituzte gogora.

Kirol modalitateak eta une historikoak erakustez harago, bitxikeriak ere ezagutu dituzte herritarrek. Esate baterako, duela hainbat urte sagardotegi askok bolatokiak ere bazeuzkatela.

Bigarren urtez antolatu du emanaldi berezi hau Zero Settek, eta bi urteotan jasotako erantzun beroa dela eta, ez litzateke harriztekoa izango 2018an diaporama musikatuaren beste edizio batez gozatzea.



TXEMA VALLES


Gabonetako doinuek erakustaldia

Brigitarren komentua goraino bete zen larunbatean, Alboka Abesbatzak urtero-urtero eskaintzen duen Gabonetako kontzertuaz gozatzeko. Aurten Oiartzungo Lartaun abesbatza lagun izan du. Euskal gabon kantak, zein nazioartekoak eskaini dituzte, eta elkarrekin *Gabon gaua* abestu dute. Ahotsak fin dituztela erakutsi dute bi abesbatzetako kideek.

Udalak etxez etxe banatuko du 2018. urteko egutegia

Jesus Zaballos alkateak 2018. urteko egutegia aurkeztu du. Etxez etxe, guztira 8.000 ale banatuko dituzte. Alkateak jakitera eman duenez, 9.229 eurotako aurrekontua du ekimenak.

Guztion Lasarte-Oria programako mural irabazle, zein udalaren ekimenez berritu diren hainbat txokoen irudiak dira protagonistak. Isaac Farre Ricok atera ditu argazkiak.



Errefuxiatuen aldeko bilketan, herritarrek erantzun ederra

Lasarte-Oriako Talde Aktibistak Bilboko portuan dauden errefuxiatuei eramateko materiala bildu du.

Herritarrek ederki erantzun diote taldeak egindako deialdiari. Lo zakuak, botak... Denetarik eraman dute Okendo plazan jarrita egon den karpalara, eta hau txiki geratu zaie momentu batzuetan.



ADURIZ DE LASARTE, S.A.

BERTAN EKOITZITAKO KALITATEZKO PRODUKTUAK

- ✓ Odolkiak
- ✓ Solomo antzutua
- ✓ Etxeko txorizoa
- ✓ Basurde burua
- ✓ Txistorra
- ✓ Solomoa baratxuritan
- ✓ Tripakiak, saltxitxak...
- ✓ Baserri pateia

Loidi Barren kalea 3, 20160 Lasarte-Oria
Tel: 943 36 12 78 - 943 36 16 55 - 943 36 24 51



2018 zoriontsua opa dizuegu!

NOAOA
BIDAIAK

IRTEERA MAIATZEAN
Noaoak gidatutako talde bidaiak.
Lasartetik irtenda.

T.: 943 373 613 • info@noaoa.eus • Hipodromo Etorbidea 10, Lasarte-Oria

Nagusia 49,
Lasarte-Oria
943 37 02 90

Jantzi denda
INQUIETUD



38-60 neurriak

2018 zoriontsua izan dezazuela!



Buruntzako gailurrera, urteari amaiera emateko

Azken urteetan lez, abenduaren 31n Buruntzara igotzen diren herritarrek hamaiketakoaz eta jaitxoaz gozatuko dute San Roke basilizan, 10:00etatik aurrera. Ostadar SKTk eta Ttakun KEk elkarlanean antolatutako ekintza ohitura bilakatu da

Txintxarri

San Roke basilizaren inguruan giro ederra izango da abenduaren 31n, goizean. Ostadar SKTk eta Ttakunek antolatuta, Buruntza mendian 2017. urteari agur esateko aukera izango da.

Lasarte-Oria inguruko txokoez gozatu, eta, bide batez, kirola eginez urtea amaitzeko aukera eskaintzen dute bi elkarteek.

Herritarrek Urtezahar egunean haien kaxara eta erritmora egin dezakete Lasarte-Oria eta Buruntza arteko ibilbidea. Hainbat aukera daude mendira igotzeko: Lasartetik, Oriatik, Azkorteko basilizatik, Urnieta bidetik... Ibilbide laburra edo luzeagoa, herritarrek aukeratu beharko.

Hamaiketako gozoa

Gailurrera iristen direnek San Roke basilizaren ondoan dagoen aterpean hamaiketakoaz eta musikaz gozatuko dute.

Jaitxoa 10:00etan hasiko da, eta jana bukatu arte iraungo du. Hamaiketako goxoa egongo da: txorizo errea, gazta, salda, ardo eta sagardo tragoxkarekin. Haurrentzat, gainera, txokolatezko tabletak dituzte. Eta jai giroa borobila izateko, trikitixa soinuez girotuko dute goiza.



laz jende ugari bildu zen San Roke basilizan, giro onean. TXINTXARRI

Eguraldi txarra egingo balu, mendiaren magalean, basiliza ondoan, aterpea dago, eta sua egingo da tarte horretan epelago egoteko.

Ohitura sortuz

Inguruko herri askotan dago ohitura mendian urte zaharra agurtu eta berriari ongiatorria egiteko. Lasarte-Oria horrelako ohitura sortu asmoz, 2012an hasi ziren Ostadar SKT mendi saileko eta Ttakun Kultur Elkarte kideak hamaiketako berezi hau antolatzen.

Urtetik urtera errotuz joan da hitzordua. Iaz, esate baterako, ugari izan ziren eguraldi onak bultzatuta mendira igo ziren herritarrek. Giro polita sortu zela azpimarratu dute antolatzaileek, baita jatekoa azkar amaitu zela ere.

Urteari bukaera lege onean eman nahi diotzen aukera du aurrean ere mendi buelta ederra egin, eta Buruntzan lagun artean egoteko. Ostadar SKTk eta Ttakunek herritarrek animatzen dituzte hitzordura azaltzera.



Aho batez erabaki dute parte hartze prozesuari ekitea. HITZARTU

Hondakinen gaiari heltzeko, parte hartze prozesua martxan

Erraustegiark sortutako gatazkari konponbide eman asmoz, *Hitzartu* prozesua abiarazi du GuraSOsek

Txintxarri

Hondakinen kudeaketaren gatazkari irtenbide bat bilatzeko, gizartearen eskuhartze proposamen bat aurkeztu du GuraSOsek: *Hitzartu*. Gizarte Zibilaren ekimenez jaiotako egitasmoa, eta hitza hartu eta adostasun batera iritsi nahi dutela eman dute jakitera.

Programaren helburua da aniztasunetik, elkarrizketaren bidez informazioa eman eta eztabaidarako tartea zabaldua, hondakinen gatazkari konponbide adostu eta demokratiko bat ematea. Horrela azaldu du *Hitzartuk*. Hiru irizpide ditu egitasmoak: herritarren parte hartze prozesua egitea; 2017-2030 urtera arteko GHHKPO (Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko Plan Orokorra) idaztea; eta hiri hondakinen kudeaketan hitzarmena lortzea.

Foro irekia eta aniza osatu nahi dute, hondakinen

kudeaketaren inguruko kezken, jakin-minen eta iritzien guztien gainean hitz egiteko erabilgarri izango dena.

Erronka hartzeko deia, herriari

Jendarteari dei egin diote erronka bat hartzeko: "Prozesu hau esperimentu bat da, aukera berri bat Gipuzkoako gizartearentzat". Herritarren inplikazioaren arabera izango da; elkarte, mugimendu eta pertsonen arabera. Baina *Hitzartuk* garbi du: "Gizarteak ezin du ikusle gisa gelditu, inondik ere, eta inplikatu behar du, irtenbide adostu eta osasuntsu baten alde".

EHuk diseinatua

Euskal Herriko Unibertsitateak diseinatu du parte hartze egitasmoa, eta Gipuzkoako herritar ugariaren, eta gizarte alor askotako jendearen babesa jaso du.

ETXEZARRETA HARATEGIA

- Bertako okela
- Urdaitegia
- Eramateko janaria

Eguberri on eta
2018 zoriontsua izan dezazuela!!

Hipodromo Etorbidea, 2 - Tel. 943 361 379 / 610 441 544 - LASARTE-ORIA



Leire Elizegi eta Pablo Barrio EH Bilduko kideak, eskuorriekin, Lasarte-Oriako autobus geltoki batean. TXINTXARRI

Autobus murrizketak salatzen diren eskuorriak

Gipuzkoako Foru Aldundiak aurkeztutako autobus murrizketekin kezkatuta jarraitzen du Lasarte-Oriako EH Bilduk. Foru Aldundiari exijitu dio Lasarte-Orian lehen mailako autobus zerbitzua eskaintzeko. Herritarrek informatzeko eskuorriak banatuko dituzte

Txintxarri

Gipuzkoako Foru Aldundiak autobus zerbitzu publikoan aurreikusitako murrizketak "larriak" dira Lasarte-Oriako EH Bildurentzat. Gaiarekin kezka agertu du beste behin alderdiak, eta murrizketak salatu eta herritarrei horien berri emateko eskuorriak banatuko dituzte.

Pablo Barriok eta Leire Elizegi alderdikideek ohartarazi dute murrizketek eragina izango dutela herritarrengan. Autobusen ibilbidea aldatu, bidaiak gutxitu eta maiztasuna jaitsi egingo da. Horrez gain, gidariek ere

lanpostuak galduko dituztela salatu dute. Ingurumenari dagokionean, nabarmendu dute mugikortasun jasangarriaren bidean emandako pausuk atzerapauso bihurtuko direla.

Egindako lana, eraginkorra

Horrekin batera, murrizketen berri izan zen unetik alderdiak egindako lana "eraginkorra" izan dela jakinarazi dute Barriok eta Elizegik. "Ezkatatu nahi zituzten informazioak herritarrekin konpartitu ditugu, eta orain denek onartzen dute prozedura desagokoa izan dela".

Aldundiak onartu du akatsak egon direla aurkeztutako aurreproiektuan, eta zuzenketak egin beharko direla. Aitorpen hori "oso ondo" dago EH Bilduren ustez, baina ez da nahikoa; udalen, sindikatuen eta garraio erabiltzaileen parte hartzearekin lanketa egitea nahi du.

Donostiako metroa

Beste salaketa bat ere egin du Barriok: "Autobus zerbitzuetan murrizketak planteatzen dituzte EAJK eta PSEk, baina Donostiako metroa eraikitzeko 200 milioi euro gastatu nahi dituzte".

Oarsoarrak saria jaso du Kuadrillategi egitasmoak

Ttakun Kultur Elkarteak koordinatzen dituen Pasaia eta Lezoko proiektuak ere saridunen artean izan dira

Txintxarri

Orain zazpi urte hasi zen Oarsoaldeako Euskara Batzordea Oarsoarrak sariak banatzen. Ttakun Kultur Elkarteak koordinatzen duen Pasaia eta Lezoko Kuadrillategi saritu dute aurtengoa, Errenterriko eta Oiartzunekoekin batera.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako gazte kuadrilletan euskara ohiturak bultzatzea du helburu Kuadrillategi egitasmoak. Ttakun kultur elkarteak koordinatzen du

Pasaia eta Lezoko proiektua, eta horiek jaso dute aurtengoa Oarsoarrak saria (baita Errenterriko eta Oiartzungo Kuadrillategi ere). 2002. urtean sortu zen Kuadrillategi Pasaia, eta handik zabaldu zen gero Lezora.


Oarsoaldeako Euskara Batzordearen ustez, eskualdean gazteen artean jarduerak arrakastatsua da, eta horren ondorioz erabaki dute proiektuari saria ematea. Abenduaren lehen jaso zuten egitasmo gazteek saria.



TXINTXARRI

Tradizioak txikitatik ikasten

Lasarte-Oriako haurrek trebezia ederra erakutsi dute arto-irin artean. San Tomas azokako talogileek lagunduta, talo ederrak prestatzen aritu dira umeak, Arrieskalleta elkarte gastronomikoan egindako tailerrean. Ostegunean Okendon egindako San Tomas azokan ederki erakutsi zuten ikasitakoa.



Eguberi on!

ELECTRICIDAD ARREGUI



600 857 586
www.electricidadarregui.com
tienda.electricidadarregui.com
(on-line denda)



Valira parrila eta plantxak

- Aluminio deformaezin eta iraunkorra
- Ez itsasteko estaldura ekologikoa
- Indukziozko plaketan azkarra
- Labean ere erabiltzeko aproposa



Baliatu 10+ bonoaz!
Zure 20€, 30€ bilakatzen dira!*

*Bono kopuru mugatua



Argiztatu zure etxea LED lanpara ederrenekin!

Aukera zabala LED argiztapenean:

- Aplikeak
- Sabaiko lanparak
- Fokuak (alogenoen ordezkagarriak)

Motorrak berotzen

Okendo plaza bete du San Tomas azokak



Gaztetxo asko gerturatu dira txerrama eta txerrikumeak ikustera. TXINTXARRI



Boluntarioak taloak egiten Ttakuneko postuan. TXINTXARRI



Jende ugari bildu da Okendo plazan. TXINTXARRI



Pablo Mutiozabal 2, Lasarte-Oria
Tel. 943 36 95 08

TABERNA
Buenetxea
KAFETEGIA

Gabon eta Urte Zahar gauetan
GAU OSOA IREKITA!!

Eguberri eta Urte Berri egunetan
eguerdiko 12.00etatik aurrera
IREKITA!!




*Eguberri
eta Urte Berri on!*



*Nahi edo behar
duzun huraxe
aurkituko duzu
gurean!*

Fernández
ehunak



*Eguberri eta
2018 zoriontsua
opa dizuegu!*

Kale Nagusia 2 - Tel. 943 36 16 07 - LASARTE-ORIA



Plaza dantza egin dute Ttiriki Ttarrakaren doinuekin. TXINTXARRI



Xumela abesbatzakoak oholza gainera igo dira azoka girotzeko. TXINTXARRI

Eguberriak hasteko irrikaz dago jendea, familia eta lagun artean festez gozatzeko. Beroketa lanak egin dituzte askok San Tomas egunean. Arratsalde partean azokak hartu du Okendo plaza, eta jendez bete da. Ez du ezerk hutsik egin. Trikiti eta pandero doinuek, euskal abestiek eta erromeriak girotu dute azoka. Sagardoaren eta txistorra taloen bueltan bildu da jendea hitz egitera.


Beste urte batez, Ttakun Kultur Elkarteak antolatu du San Tomas azoka Lasarte-Orian. Neguaren hoztasunak ez du jendea kikildu, eta plaza bete da. Gaztain erre beroek lagundu dute hotzari aurre egiten. Baserritar jantziek ere babestu dute jendea aire freskotik.

Haurren artean arreta gehien erakarri du zerriaren postuak. Aurten ere, zerramaz gainera beste sei bat zerrikume jarri dituzte ikusgai, hesiez inguratutik.

Institutuko ikasleek ez dute aukera galdu, eta txistorra ogitartekoak eta sagardoa saldu dute, ikasbidaiarako sos batzuk irabazteko. Halere, Ttakunen taloen postua izan da preziatuena; ilara luzeak sortu dira horiek eskuratzeko.

Ikuskizuna iluntzean hasi da. Ttiriki Ttarrakako lagunak oholza gainera igo dira, trikitiarekin plaza alaitzeko. Xumela abesbatzakoek jarri dute ahotsa, zerxobait geroago. Dantzaldia, berriz, Erketzen eta Kukukaren esku geratu da. Azkenerako, plaza osoak bat egin du ikuskizunarekin.

Gorritz markatutako data da eta San Tomas. Zaharrak, gazteak, helduak, ikasleak, langileak, erretiroa hartutakoak... Adin tarte eta mota guztietako pertsonak aprobetxatu dute gertukoekin ospatzeko.



Carrefour
express



2018 zoriontsua opa dizuegu.
Eguberri on!

Juan XXIII plaza, Lasarte-Oria



Disfrutatu
gabonetaz!!

Riojanos
Erretegia

Afariak,
bazkariak,
pintxoak...

Uistin kalea 13 - Tel. 943 36 27 20 - Lasarte-Oria



Maria Luisa
ilecapaindegi mistoa
Eguberri on!

943 37 09 80
Pablo Mutiozabal 9, behea
Lasarte-Oria



Eguberri on!
Geltoki kalea 12, Lasarte-Oria
Tel.: 943 37 27 91



Mari Domingi, Xixuko, Olentzero, Porrotx, basoko izaki magikoak eta Lasarte-Oriako haur eta gazteak izango dira kale jira erraldoian. TXINTXARRI

Ongi etorri beroa, igandean

Txintxarri

Eguberriak iritsi dira. San Tomas amaitu eta haurrak Olentzero eta Mari Domingi noiz etorriko zain daude. Egunak eta orduak kontatzen egongo da bat baino gehiago, eskatutako oparia zuhaitz azpian ikusteko irrikitan.

Askok oraindik eskutitza prestatu gabe izango dute, baina igande arratsaldean Olentzero, Mari Domingi edo Xixukori emateko aukera izango dute Ttakun KEk antolatutako harrera jaialdian.

Desfilea

Ekitaldia hasi baino lehen Lasarte-Oriako kaleetatik barrena ikusi ahalko dira ikazkina eta bere lagunak, baita Porrotx bihurria ere.

Suzirien hotsek iragarriko dute Olentzero eta bere lagunak etorrera. Azken suziriarekin

batera, 17:00ak aldera, Loidi Barreneko pilotalekutik kalejira erraldoia aterako da Okendo plazaruntz. Olentzero, Mari Domingi, Xixuko eta Porrotxek ibilbidea karrozan egingo dute.

Horiez gain, menditik jaitziko galtzagorri bihurriak izango dira bi karrozetan, baita arkumetxoak ere.

Gazte Kluba eta Kuadrillategiko DBH2ko gazteei esker, pertsonaia mitologikoak ere izango dira

desfilean: Sorginak eta Tartalo, Basajaun, Basandere, Mari Teilatuko eta lamiak.

Kuadrillategiko DBH1 mailako lagunak aldiz, argi-zuziriak eramango dituzte desfilean. Eta DBH4 mailako taldearen

rezibatukadak giro ederra sortuko du.

Amaraun Klubeko haurrek aste honetan zehar egin den tailerrean otarrak prestatu dituzte. Horiek konfetiz bete eta desfilean zehar kaleak eta herritarrak alaitzeko jaurtiko dute.

Desfilea eta kaleak girotzeko Ttirriki Ttarrakako trikitalariak izango dira. Jalguneko kideek ere parte hartuko dute, baita nahi duten herritar guztiek ere. Hitzordua guztientzat 16:45ean izango da.

Emanaldia

Erdiguneko kaleetan zehar ibili ostean, karrozak Hipodromo etorbidean utzita Olentzero eta bere lagunak Okendoko oholtzara oinez joango dira. Harrera egiteko rezibatukadaren emanalditxoak izango da plazan.




ALBA

ARROPA DENDA

%20
beherapena

Zatoz eta eskuratu Aterpeako
zozketarako txartelak!

Eguberri on eta
2018 zoriontsua izan dezazuela!



Nagusia 65 behea • Lasarte-Oria • Tel.:943 574450

KOOKAI

IN

DEVOTA & LOMBA
BY THE OCEAN COLLECTION


ese 0 ese

NAFNAF

YEFSE

1.999 TIK
ABREU
Bazarra

Eguberri on!



www.facebook.com/pages/Bazar-Abreu

Geltoki kalea 2,
LASARTE-ORIA
Tel: 943 36 58 46



Xixuko, Mari Domingi eta Porrotzek sorpresaz betetako ongi etorria prestatu dute. TXINTXARRI

Ostean, musikaz betetako Olentzeroren etorrera jaialdia hasiko da.

Olentzero prestatu bitartean, Xixuko, Porrotz eta Mari Domingi izango dira protagonista. Ezustekoz eta musikaz betetako tartea izango da. Porrotzek dantzan jarriko du plaza, eta antolatzaileek aipatu dutenez, gonbidatu bereziak izango ditu horretarako.

Jarraian, ikazkin ezagunari harrera beroa egingo zaio. Galtzagorri eta arkumetxoek lagunduta igoko da Olentzero oholtzara, eta haurrei hitz batzuk eskainiko dizkie.

Emanaldia amaitzean haur guztiek espero duten momentua iritsiko da: eskutitzak entregatuko dituzte. Olentzero, Mari Domingi eta Xixukok bi orduz etxeko txikien nahien eta ilusioen berri izango dute.

Oholtzan Ttiriki Ttarrakako lagunak hartuko dute arratsalde berezi hori girotzeko testigua. 20:00ak aldera, Olentzerok eta bere lagunak etxeko txikiak agurtuko dituzte, gau nekeza izango baitu ikazkinak aurretik. Antolatzaileek azaldu dutenez, eguraldi txarra egitekotan, jaialdia Loidi Barren pilotalekuan egingo litzateke.

Errondak eta txokolatea

Goizean ere, giro ederra izango da herriko etxe, baserri eta txokoetan.

Ohiturari jarraikiz, hainbat elkarte eta talde ere Eguberri bezperako erronda egingo dute herritarrek alaituz.

Bigarren urtez Lasarte-Oriako ikastetxeetako haur eta gurasoak batera aterako dira kantuan Ttiriki Ttarrakako taldeko kideak lagun dituztela.



Landaberri eta Sasoeta-Zumaburu ikastetxeetako haurrak aho zabalik utzi zituen Xixukok elurrarekin. TXINTXARRI



Ikastetxeetan ilusioa banatzen

Lasarte-Oriako ikastetxeetako txikiak bisita berezia jaso dute egun hauetan: Xixuko ahatea.

Astelehenean, Landaberri ikastolako Garaikoetxea eraikinean izan da ikazkinaren laguna; asteartean, berriz, Sasoeta-Zumaburu ikastetxeko txikiak gozatu du, Sasoeta eraikinean eta euskaltegi zaharrean.

Elurra eta dantza

Xixukok azken aste hauetan bere baserrian elurra egin duela aipatu du. Euri tanta batekin elurra nola egin erakutsi die txikiak, eta haiekin batera *Euri tanta banintz* abestia dantzatu du.

Olentzero, Mari Domingi eta Xixukoren ongi etorri jaialdirako

gonbita egin, eta badaezpada, oraindik prest ez duenarentzat eskutitzak banatu ditu.

Haur eta gaztetxoek ere bazuten Xixukori zer eman, Olentzerorentzat eta Mari Domingirentzat egindako marrazkiak.

Saioen amaieran, guztiekin argazkiak atera ditu.

Jaizkibel plazatik aterako dira guztiak, 11:00etan. Herriko kaleak girotuko dituzte, eta 12:00ak aldera Okendo plazara iritsiko dira. Bertan, Ttakun KEk antolatuta, 12:30ean, txokolate janaz gozatu ahalko dute, baita plazara hurbiltzen diren lagun guztiek ere.

Guraso elkarteko kideek ikasleak gonbidatu dituzte erronda honetan parte hartzera.

Honetaz gain, goizean, 10:00etatik aurrera, Zabaletako lagunak Antonio Blas plazatik irten eta auzoko txoko guztietan gabon giroa ezarriko dute haien kantuekin. Gainera, 12:30ak

aldera, Mari Domingiren bisita izango dute, eta aurtun auzoan jaio diren haurrei ongi etorria egingo diete, oparitzo eta guzti.

Arratsaldean Alboka abesbatza herriko kaleetatik barrena ibiliko da kantuan, Atsobakar zaharren egoitzan hasita. Herriko zahar egoitzako kideentzat saiotxo eskainiko du abesbatzak, horiei ere egun berezi hauek alaitzeko helburuarekin.

Bestalde, Erketz Euskal Dantza Taldeko kideek baserri baserri egingo dute erronda.

Horiez gain, txanpon batzuk biltzeko asmoz haur taldeak

ibiliko dira kale eta etxeetan zehar gabon doinuak eskaintzen.

Entseguak

Errondako doinak jakin eta ahotsak prestatzeko Erketz EDT eta Zabaleta auzoko lagunak entseguak egingo dituzte gaur, ostiralez.

Erketz EDTk, 20:00etan, Sasoeta auzoan kokatuta dagoen KZgune Zaharrean. Zabaletako auzotarrek berriz, 19:30ak aldera, Antonio Blas plazako lokalean bilduko dira. Herritarrek gonbidatu nahi dituzte taldeekin batera Gabon bezperako erronda egitara.

Hiru belaunaldiko esperientzia duten arotzak gara

- Altzairuak neurrira
- Era guztietako arotz-lanak
- Egurrezko lurrak eta sintetikoak
- Etxe barruko konponketak

Gure zerbitzu guztiak ikusgai:

www.iurruzola-aroztegia.com

I. Urruzola aroztegia

2018 zoriontsua opa dizuegu!



iurruzolaaroztegia@gmail.com
943 371 200 / 615 784 238

Oria etorbidea 4, behea. 20.160 Lasarte-Oria



Ekintzez betetako Eguberriak

Lasarte-Oriako Eguberrietako Haur Parkera edo BECeko parkera irteera, musika emanaldiak, zinema, Errege Magoen kabalgata... Hamaika ekintza izango dira Eguberrietan. Herriko haur, gazte eta helduek ez dute aspertzeko astirik izango.

Txintxarri

Eguberriak iritsi dira eta elkarteek eta udalak adin guztientzako ekintzak antolatu dituzte hamabost egun hauetan.

Gaur, ostirala, arratsaldean, 17:00ak aldera, EHP Eguberrietako Haur Parkeak irekiko ditu ateak. Etxeko txiki eta gazteek Michelingo kirol gunean eta Oria auzoko Bitarteko tenis pistan egongo diren jolas eta ekintzez gozatu ahaliko dute.

Anima Services enpresak kudeatuko du berriz ere EHP. Bi koordinatzaile, hogeitaz begirale eta mantentze-lanetarako teknikari bat arduratuko dira jarduerak ondo funtzionatzeaz. Lasarte-Oriako Udalak jakitera eman duenez, EHPren kostu osoa 27.273 eurokoa da.

Parkea 11:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara egongo da zabalik, hilaren 24an, 25ean eta 31n izan ezik. Gabon bezperan eta urte zahar egunean arratsalde itxita egongo da, eta hilaren 25ean, egun osoan.

Haurrak doan sartuko dira parkera; helduek euro bat ordaindu beharko dute.

Ohikoa den bezala, gune garrantzitsuena Michelingo pilotalekuan jarriko dute. Bertan 0 eta 10 urte arteko haur eta gaztetxoek zuzendutako ludoteka, ipuin-kontarien txokoa, ohe elastikoa, makillatzeko eta tatuatzeko gunea, zezen mekanikoa, puzgarriak, oreka-bola, *wipe out*-a eta zinema-karpa bat izango dira. Tailerretarako txokoa ere izango da, eta egunero adin ezberdinetarako hiru tailer eskainiko dituzte.

Honetaz gain, aurten ere karaokea izango da, eremuan Eguberri giroko doinu eta beste doinu ezagunekin haurrak dantzan jarriko dituen.

Oholtzako egitaraua

Frontoia koloretako oihal eta moketaz apainduta egongo da. Oholtza izango du, eta bertan hainbat emanaldi izango dira.

Gaur, ostirala, arratsaldeko 19:00etan, Mikel Susperregik ipuin saioa egingo du.

Abenduaren 27an, ostegunean, 19:00etan, *Begira* festa antzerkiaz gozatu ahaliko dute haurrek.

Hilaren 30ean, larunbatean, 19:00etan, *Patata tropikala*

antzerkia ikusi ahaliko dute haurrek.

Eta abenduaren 31n, igandean, 12:00etan, EHPren itxiera jaialdia izango da. Agurra Dantza eta beste joko batzuk egingo dituzte.

Honetaz gain, taberna ere izango da. Aurten C.D. Eguzki Areto Futbola elkarteak kudeatuko du taberna, baita eremuko sarrerak ere. Eskuratutako dirua elkartearentzat izango da.

Michelingo tenis-pistan, aldiz, 300 m²-ko karpa klimatizatua egongo da.

Giza futbolina, zezen mekanikoa, salto-salto puzgarria, lau bumper ball, Zorb-ball, rokodromoa, multiabenturako joko mugikorra, ping-pongeko bi mahai, bi futbolin, *air-hockey* bat, *balanze-bike* bat eta DJarentzako tokia izango dira 12 urte baino gehiagoko gaztetxoek gozameneko.

Oria auzoko Bitarteko tenis-pistan, familiar gozatzeko jokoak izango dira, 225 m²-ko karpa klimatizatua: eskaladako joko bat, ohe elastiko erraldoi bat, *balanze-bike* bat, kirol-eremu bat, futbolinak eta mahai-jokoak.



Ohe elastikoa, zezen mekanikoa, puzgarriak, oreka-bola, *wipe out*-a... Haur eta gaztetxoek gozatu

Honetaz gain, Ttakun Kultur Elkartearen eskutik, Gazte klubeko lagunek hainbat ekintzaz gozatzeko aukera izango dute.

BECCera txangoa eta Gazte astea

Abenduaren 27an, asteartean, Barakaldoko BECeko Eguberrietako Haur Parke erraldoira irteera izango da.

09:30ean abiatuko dira Zumaburuko geltokitik Barakaldora. Parkean dauden jolas eta atrakzioetaz gozatu eta 18:30rako bueltan izango dira.

Abenduaren 28an eta 29an, berriz, Gazte Astea egingo da, eta bideo berezia grabatuko dute gaztetxoek.

Musika eta zinema

Ama Brigitarren komentua eta Manuel Lekuona kulturetxean musika izango da nagusi.

Gaur, ostiralean, 19:30etik aurrera, Danok Kidek antolatutako Musika Topaketen hitzordu berria dago Brigitarren komentuan.

Ana Belen Garcia organo-jotzaile eta Amaya Arberaz



- Ogi ezberdinak
- Bonboiak
- Opilak
- Kafetegia
- Pastak
- ...



**Eguberri zoriontsuak
opa dizkizuegu!**





enerako denetarik egongo da Eguberriko Haur Parkeko hiru guneeetan. TXINTXARRI

sopranoak doinu klasikoak zein gabon kantak eskainiko dituzte emanaldian. Hala nola, Haendelen *Mesias* obrako *Rejoice greatly*, Mozarten *Figaroren eskontzako Porgi Amor*, Ercillaren *Mesias sarritan* edo Pierponten *Jingle Bells* entzungo dituzte komentura hurbiltzen diren herritarrak.

Bost egunera, abenduaren 27an, asteazkenean, harpen korden doinuak izango dira protagonistak, kaperan Kontsueloko Ama Birjina musika kaperak antolatuta.

Ane Artetxe, Maria Llanos eta Raquel Ortega harpa jotzaileek

musikagile ezagunen doinuak eskainiko dituzte.

Baina egun hauetan ez dira abesti klasikoak bakarrik izango. Gospel emanaldia ere izango da abenduaren 29an, 20:00etan, Manuel Lekuona kultur etxean.

America's ladies of gospel hirukoteak egitarau berezia prestatu du, lehen kantutik hasi eta azken doinura arte entzulegoa txundituta izango duena. Emanaldiko sarrerak 5,50 euro balio ditu.

Bestalde, zinematik ere izango du tartea egun hauetan. Adi,

izan ere, Okendo Zinema taldearen zine forumak egun aldaketa baitu. Hitzordua, abenduaren 28an, ostegunean, izango da, eta *50 primaveras* filma eskainiko dute.

Filmak Aurore Tabort-en bizitza aurkezten du. Aurore banandu egin da, lanik gabe geratu eta amona izango dela jakin berri du. Badirudi gizarteak amaitutzat ematen duela 50 urteko emakumeen bizitza. Baina Aurore ez da horren aldeko.

Hau guztiaz gain, Urtezahar egunean, abenduaren 30ean,

Danok Kide elkarteak antolatzen duen Jaiotzen Lehiaketako sari banaketa izango da, 12:00etan, elkartearen egoitzan.

Abenduaren 19a eta 20a izan ziren jaiotzak aurkezteko egunak, eta egun hauetan epaimahaiak bere aukeraketa egingo du.

Izan ere, lehiaketako irabazleak Muebles Azpeitian jarriko dituzte ikusgai. Gainontzeko lanak San Pedro elizan ikusteko aukera izango dira. Elkarteak parte hartzaile guztiak gonbidatu ditu banaketara hurbiltzera.

Erregeei harrera

Azkenik, Eguberriei amaiera emateko, Errege egun bezperan, urtarrilaren 5ean, Errege Magoen Kabalgata izango da herriko kaleetan.

Berrikuntza txikiak dituzte aurten kabalgatan. "Herritarrek berrikuntza gutxi nabarituko dituzte". Xehetasun asko eman gabe, Megabako lagunek "segurtasun neurriak hobetu eta su-hitzalgailuak berri" dituztela esan dute.

Edonola ere, goizean, Okendo plazan, 12:00etan hasita, aurreko urteetan baino ekintza gehiago izango dira. Egun osoan zehar ibiliko dira erregeak eta haien laguntzaileak Lasarte-Orian.

Errege Magoen bisita jasotzen lehenak, goizean, Atsobakar Zahar egoitzako lagun eta bere familiak izango dira.

Eguerdian, aipatu legez, haurrentzako ekintzak izango dira Okendo plazan. Bitartean, erregeen laguntzaileek haurren eskutitzak jasoko dituzte.

Errege Magoak, berriz, arratsaldeko 16:00etan iritsiko dira Lasarte-Oriara. Meltxor, Gaspar eta Baltasar ordu eta erdiz Ama Brigitarren komentuko

kaperan izango dira eskutitzak jasotzen. Kabalgata, 18:00etan aterako da Oria auzotik.

Urtero bezala, geldialdia egingo dute Brigitarren komentu aurreko jaiotzan, eta ondoren, bidearekin jarraituko dute, Hipodromo etorbideetik, Iñigo de Loyola eta Geltoki kaletik Okendo plazara iritsi arte.

Mercero plazan su artifizialak izango dira Errege Magoak plazara iristerakoan, baita musika ere. Felix Garitano komentuko apaizak harrera egingo die erregei. Horiek Jesus haurtxoa gurtu eta balkoira igoko dira. Bertan haurren eskutitz batzuk irakurri eta goxokiak botako dituzte.

Zuzi eramaileak eta laguntzaileak

Kabalgatan zuzi eramaile bezala parte hartu nahi duten gazteei deialdia egiten die elkarteak, abenduaren 27an, asteazkenean, arratsaldeko 18:30ean, Manuel Lekuona Kulturetxeko kafetegian.

Megaba elkarteak jakinarazi du garrantzitsua dela bilerara gerturatzea. Izan ere, trajeak bertan banatuko dituzte.

Horretaz aparte, urtarriletik kabalgataren arropa duten herritarrei ere bilerara hurbiltzeko gonbita egin diete antolatzaileek. Era berean, zuzi emale izateko 11 urte izan behar direla ohartarazi dute.

Hau guztiaz gain, Megabak deialdia egin die herritarrei ekintzan laguntzaile modura parte hartzeko. "Gure elkartean boluntario berriak behar ditugu".

Zalantzarik izan ditzaketen herritarrek 635 205 393 telefonora edo megabalasarteoria@gmail.com helbide elektronikora idatzi dezakete.

GURE NAGUSIEK IRAKATSI ZIGUTEN MODUAN, JARRAITZEN DUGU PEDALEI ERAGITEN.

Duela 50 urte baino gehiago, aitona Martinek gure empresa txikia hasi zuen ingurunean kafea bizikletaz banatzen. Amona Maritxuk hartu zuen agintea bera desagertzean. Gaur beraien legatua hartu eta aurrera jotzen dugu. Famili bera gara, artisau kafe bera, denda bera, zerbitzu bera. Irudia besterik ez da aldatzen.

EGUBERRI ON



Gabonetan ere lagun artean sasoiari eusteko

Astehenean gaztetxoaren areto futboleko topaketak hasiko dira. Hurrengo ostiralean, berriz, saskibaloiko 3x3 txapelketa jokatuko dute. Azkenik, urtea giro onean amaitzeko, San Silvestre lasterketa antolatu dute hirugarrenez, egitarau zabalarekin

Txintxarri

Lehiaketa ofizialek etenalditxoia izan ohi dute Gabonetan, baina, halere, izango da hurrengo egunetan kirola egiteko aukera herritik bertatik mugitu gabe. Azken urteotan bezala, gaztetxoentzako areto futboleko topaketa antolatu dute. Kirol Eskolakoek, alebinez eta infantilek abenduaren 26tik urtarrilaren 4ra jokatuko dituzte partidak, Maialen Chourraut kiroldegian hasieran, eta Michelingo frontoian azkenak. Bestalde, saskibaloizaleek ere haien eguna izango dute, 3x3 txapelketa jokatuko baitute hilaren 30ean. Benjaminetik hasita senior kategoria arte, egun osoan baloi artean igaroko dute. Azkenik, urtea amaitzeko, San Silvestre lasterketa egingo dute hirugarren urtez, mozorroturik jai giroan ongi etorria emateko urte berriari.

Eguzki Areto Futbol taldea aurten sortu dute, herriko talde guztiak batuta, eta, beraz, lehen aldiz antolatu du Gabonetako topaketa Ostadar elkartetik kanpo. Kategoria bakoitzean zortzi talde arituko dira gehienez. Alebinez dagoeneko izen eman dute zortzi taldek, baina beste kategoriatan oraindik aukera dago parte hartzeko. "Futboleko



San Silvestreko antolatzaileak, Jesus Zaballos alkatearekin batera. TXINTXARRI

elastikoak eta opariak emango dizkiegu parte hartzaile guztiei", esan du Gorka Redondo antolatzaileak.

Michelin frontoian

Hilaren 26ko astean ligaxka moduko bat jokatu dute, eta azkeneko partida urtarrilaren 4an izango da. "Helburua da oporretan umeez ondo pasatzea. Bide batez areto futbola ezagutzen badute eta gustatzen bazaie, hobeto. Baina oinarria egitea ez da helburu nagusia", dio Redondok.

Haurrak direnez, adin nagusiko pertsona batek lagunduta joan behar dute partidetara, baina ez du zergatik entrenatzaile bat izan beharrik. "Aldaketak-eta egin ditzake, baina gehienbat haurrak laguntzeko da".

Oraingoz aurreikuspenak ez dira bete, eta iaz baino talde gutxiago daude izena emanda. Halere, giro polita sortzea espero du Redondok. "Batez ere haur txikienen partidetan sortzen da giroa. Gurasoak eta aiton-amonak joaten dira animatzera, eta haurrak primeran pasatzen dute.

Ez dakite oso ondo jokatzeko, eta jolas orduan bezala korrika ibiltzen dira baloiaren atzetik".

Bosgarren aldiz, 3x3

Urte bukaera dagoeneko zita saihestezina bihurtu da Lasarte-Oriako saskibaloizaleentzat. Ostadar Saskibaloiak hilaren 30ean bosgarrenez antolatu du 3x3 txapelketa. Maialen Chourraut kiroldegian egingo dute jardunaldia, eta ikusita urtetik urtera gero eta talde gehiagok parte hartzen dutela, bosgarren saski bat jarriko dute. "Kategoria txikienetan ikusi dugu parte hartze gero eta handiagoa, alebinez eta benjaminetan", esan du Endika Marrahi Ostadar Saskibaloiko arduradunak. "Kanpotik ere etortzen dira talde asko".

Bizkaian eta Gipuzkoan udan ohikoa da herri askotan gisa horretako txapelketak antolatzea. Lasarte-Orian, baina, dagoeneko Gabonetan finkatuta geratu da. "Udan ez genekien ze egunetan jarri, eta orain Gabonetan erreferentzia bilakatu da".

9:00etan kiroldegian egon beharko dute kirolariak. Zortzi minutuko partidak jokatuko dituzte, eta hamar minuturo bat egongo da. "Bost saskirekin, hamar minuturo bost partida egingo dira. Batzuetan bada sentazioa motzak direla, baina gero jokalariek konturatzen dira norgehiagoka mordoia jokatu dituztela".

Oraindik talde askok ez dute izena eman, baina Marrahi dio azken unean egin ohi dutela. "30-35 taldetara iritsiko bagina oso pozgarria izango litzateke". Handia baita saskibaloiko zaletasuna herrian. Horren erakusgarri, ostiralean Baskonia ikustera antolatu duten irteera.

Bartzelonaren aurka jokatu du Euroligako norgehiagoka. "Bi autobus hartu behar izan ditugu azkenean, ia ehun pertsona joango gara".

Mozorroturik lasterka

Eta urtea behar bezala amaitzeko, hirugarrenez San Silvestre lasterketa egingo dute Lasarte-Oriako kaleetan barrena. Lehen bi edizioak arrakastatsuak izan ziren, ia 700 lasterkarik parte hartu zuten bakoitzean. Herritar talde baten ekimenez antolatu dute lasterketa, baina CD Texas eta udalaren babesa du.

Aurten antolatzaileek pauso bat gehiago eman dute, eta igandeko festa luzatu dute. 11:30ean hasiko da; pintxo-pote solidarioa eta dantza egingo dute. Izan ere, aurten 1 dortsala Erketz taldeari eskainiko diote, 50. urtemugatik.

Proba hasi aurretik berotze ariketak egingo dituzte, musikarekin. Eta aurrekoetan bezala, 16:00etan hasiko da lasterketa. Iaz bezala, sei kilometro izango ditu. Lasterketaren xehetasun guztiak www.sansilvestrelasarteoria.com webgunean daude ikusgai. Kirolprobak atariaren bidez izena ematea gomendatu dute antolatzaileek, merkeagoa izateaz gainera (bost euro), lanak errazten dituelako.

Horrez gain, herritarrei dei egin diete mozorrotuta korri egiteko. Ongi pasatzea baita kirol proba horren funtsa. Horregatik, mozorro hoberenentzako sariak izango dira; bikote eta kuadrilla hoberenentzako barne. Hori bai: oroitarazi dute boluntarioak beharrezkoak direla "lan errazak" egiteko.



GAROA
taberna

Koktel bereziak
eta konbinatuak

Eguberri on eta 2018 zoriontsua izan dezazuela!

Sagardotegi kalea 4. LASARTE-ORIA



MAITE

ESTETIKA ARETOA

Ordutegi malgua daukagu
Uistin Kalea z/g • Lasarte-Oria
Tel. 943 37 08 45

2018 zoriontsua opa dizuegu!

Gabon hauetan, mimatu zeure burua eta ingurukoak!

Oparitu gure zerbilzuetan erabil zeko opari-txartela, oparitu ongizatea!

- Manikura eta pedikura
- Makillajea
- Aurpegi eta gorputz tratamenduak
- Solariuma
- Mota ezberdinetako depilazioak
- Betileen tindatzea eta permanentea...

Podiumik ez, baina dozenaka marka hautsita

Lehen postuetatik urrun geratu da Buruntzaldea IKT Gipuzkoako Kluben Arteko Txapelketan, nahiz eta lan ona egin: 43 errekor hautsi dituzte Tolosan egindako txapelketan. Soilik hamabost igerilari lehiatu izanak kalte egin die sailkapenean

Txintxarri

Azken zazpi zortzi urteetan beti podiumean egon da Buruntzaldea IKT. Asteburu honetan jokatuak Gipuzkoako Kluben Arteko Txapelketan, ordea, lehen postuetatik urrutu geratu da, baina egindako lanarekin harro itzuli dira igerilariak. Borja Apeztegia Buruntzaldea IKTko arduradunak azaldu duenez, kirolariak "dena" eman dute. Lortutako marka mordoak erakusten du hori; guztira 43 marka pertsonal ondu dituzte, hamalau taldeko errekor berri eta nesken erreleboetako bost marka berri.

Lasarte-Oria taldeko hamabost igerilari aritu dira Tolosako txapelketan. Lehiaketa mota honetarako kopuru murrizta da, eta horrek izan du eragina azken emaitzan. Mutilek zortzigarren postuan amaitu dute, neskek zazpigarrenean, eta, orotara, seigarren izan da Buruntzaldea IKT. Izan ere, igerilari bakoitzak puntuak ematen dizkio taldeari, lortutako emaitzen arabera. Eta podiumean egoteko behar-beharrezkoa da proba guztietan puntuak ateratzea.

Euren marka pertsonala hobetu dutenen artean dago Lander Sorozabal; 1.500 metroan 18:10,89 eta 800 metroan 9:39,01 denbora



Gipuzkoako Kluben arteko Txapelketan parte hartu zuten igerilariak. BURUNTZALDEA IKT

egin du, eta taldeko absolutu mailakoa hobetu du. Iñigo Ibarburu ere sendo aritu da, eta marka pertsonaletik gertu geratu da, proba guztietan lehen postuan sailkatzeaz gainera. Haitz Mitxelenak bular estiloko 100 eta 200 metroko markak hobetu ditu (1:16,82 eta 2:40,02), eta 200 tximeletan 2:12,98 denboran ezarri du bere marka onena. Unai Sagarzazuk ere ezusteko atsegina eman du. 100 librea 1:00,15 egin du; 200 librea 2:10,59; 50 librea 28,09; eta 400 librea 4:36,73.

Nesken artean, berriz, Paula Sevillanok 400 libreko 4:34,42

marka lortu du, eta Espainiako Neguko Txapelketan parte hartzeko sailkatu da. Leire Martinek, bestalde, 100 librea 1:00,51 denbora egin, eta marka pertsonala hobetu du.

Xabier Elizegi, hirugarren

Buruntzaldea IKTz kanpo egon dira ere lasarteoritarren emaitza txukunak igeriketan. Xabier Elizegi herritarrak Gipuzkoako Masterren Open lehiaketan emaitza onak lortu ditu, Legazpin. 200 metro librea hirugarren egin du Donostiako Kairoscore taldeko igerilariak.

Ostadarrek ezin du bolada on bat kateatu putzutik ateratzeko

Michelingo zelaian galdu du futboleko Ohorezko Erregional mailako taldeak, Allerruren aurka

Txintxarri

Aurreko jardunaldian handiak ziren Ostadarren Ohorezko Erregional mailako jokalarien itxaropenak. Astigarrako Mundaroren etxean 0-3 garaipen biribila eskuratuta, emaitza on batzuk kateatu eta sailkapeneko azken postutik ateratzeko aukera ona zuten.

Baina ez du asmatu futbol taldeak bi garaipen jarraian kateatzen. Joan den asteburuan Michelingo zelaian galdu zuen Allerruren aurka. Lezotarrak bigarren sailkatuak dira, eta

puntutan desberdintasun handia egonagatik, jokoan ez zen horrenbeste nabaritu.

Edonola ere, urtea azken postuan amaitu dute, baina salbazioa ez dute horren urrutu. Bizpahiru partida irabazita sailkapeneko erdialdera igo daitezke. Asmatu egin behar horretarako, ordea.

Gaboneko etenaldiaren ostean izango dute norabidea iraultzeko aukera. Horretarako, baina, ezinbestekoa izango dute hasieratik puntuak zakuratzea, azken uneko urduritasunak saihesteko.

Sagasti, bosgarren senior mailako Espainiako Kopan

Lasarte-Oriako Judoko entrenatzaile Gorka Aristegik azterketa gainditu eta 6. dana eskuratu berri du

Txintxarri

LOKEko Asier Sagasti eta Josu Olmos judokak senior mailako Madrilen egin den Espainiako Kopako saioan lehiatu dira.

Sagastiri brontzeak eskuetatik ihesi egin zion. Hala ere, bosgarren postuarekin eta egindako lanarekin pozik agertu da judoka.

Josu Olmosek aldiz, ez du finalean egoteko aukerarik izan. Gorka Aristegi entrenatzaileak azaldu duenez, bi borroka galdu ditu, horietako bat gerora irabazle izan den judokarekin.

Honez gain, taldeko Iker Dafonte, Unai Coelo, Urko Bravo, Unax Uranga, Aitor Santos eta Julen Ugarte alebin mailakoek Gipuzkoako taldeko txapelketan parte hartu dute, Hermanin.

Nahiz eta taldea final laurdenetan kaleratua izan, gaztetxo guztiak ederki borrokatu direla adierazi du LOKEko entrenatzaileak.

Bestalde, Gorka Aristegi entrenatzaileak berak abenduko zubian azterketa gainditu zuen, eta 6. dana eskuratu du.



Eguberri on!




Tel. 943 361 740 • www.tsst.info

Gure herriko autobusak
Azkarra, segurua eta erosoa

ABENDUAK 24 ETA ABENDUAK 31, AZKEN ZERBITZUAK

DONOSTIA → TOLOSA	19:15	ANDOAIN → DONOSTIA	19:45
DONOSTIA → ANDOAIN	20:15	LASARTE-O. → DONOSTIA	20:00
DONOSTIA → LASARTE-O.	20:30	TOLOSA → LASARTE-ORIA	20:25
		ANDOAIN → LASARTE-O.	20:45
USURBIL → HERNANI	20:15	HERNANI → USURBIL	19:45
		HERNANI → LASARTE	20:45

GABON GAU ETA URTEZAHAR GAUERA KO ZERBITZU BEREZIAK

DONOSTIA → LASARTE-ORIA → ANDOAIN	01:00 – 07:00 (60')
LASARTE-ORIA → DONOSTIA	00:30
ANDOAIN → LASARTE-ORIA → DONOSTIA	01:25 – 06:25 (60')

ABENDUAK 25 ETA URTARRILAK 1 EGUNETAKO ZERBITZUAK

DONOSTIA → LASARTE-ORIA → ANDOAIN → VILLABONA → TOLOSA	
08:00 – 16:00	60 min
16:30 – 21:00	30 min
21:45, 22:15 (Lasarte-Oria, Andoaín) 22:45 (Lasarte-Oria)	
LASARTE-ORIA → DONOSTIA	
07:30, 08:30	
09:20 – 16:20	60 min
17:00 – 21:00	30 min
21:45, 22:15	



Kalitateko Kodeaketa - Ingurumen Kodeaketa
Segurtasuna eta Osasuna Lanak



Zerbitzu Kalitateko Bidaiarien Garraioan
Bidaiatzaile Segurtasuneko Kodeaketa-Sistema



Enkarguaren Ordezko
Kalitate Zuzendaria



Enkarguaren Ordezko
Berdintasuna Espresu



Taldeko argazkia atera dute udaleko ordezkariekin, babesleekin eta federazioko kideekin. TXINTXARRI

Urtemuga askoren lehena

Ostadar Inklusioa taldea leihu bat da eskualdeko neska-mutilentzat, kirola egiteko aukera eskaintzen baitie. Lehen urtemuga bete du sailak, eta festa txiki bat egin dute. Taldekideek hobekien dakiten bezala ospatu dute: kirola eginez lagun artean

Txintxarri

Ospakizunetan ibili dira Ostadar Inklusioan, eta ez da gutxiagorako. Lehen urtemuga bete du taldeak, eta udaleko, Ostadarreko, Gipuzkoako Kirol Egokituko Federazioko eta Michelin eta IKT4 babesleen ordezkariak gerturatu dira taldekideak zoriontzera.

Amaia Cadarso eta Jurgi Olasagasti entrenatzaileek orain urtebete baino gehiago jarri zituzten proiektu horren zimenduak, eta dagoeneko ematen ari da fruituak. Eskuadeko neska-mutil orori kirola egiteko aukera eskaintzea ez baita gutxi. "Inklusioa bizitzako alor gutzietara eraman behar dugu,

eta zuek erakutsi duzue posible dela", adierazi die Jesus Zaballos alkateak.

Jendurrean entrenamendua egin dute Ostadarreko kirolariek, eta saskibalo partida batean erakutsi dute aulkarekin duten abilezia. Ongi amaitu dute denek urtemuga, mahai baten inguruan askaria eginez.



Ostadarreko kideak, entrenatzaileen begiradapean, ariketak egiten. TXINTXARRI



Saskibalo partida bat jokatu dute entrenamendua amaitu aurretik. TXINTXARRI



Taldeko ekipamendu berria jaso dute kideek. TXINTXARRI

Bideo Lagunak

TIEN 21



Finantziak
neurira



Garraio
zerbitzua



Erabiltzaile
gailuen
jasotzea



Aholkularitza
espezializatua



Preziorik
onena

Etxekotresna
elektrikoetan adituak



ZERBITZU TEKNIKO PROPIOA

Zatoz ezagutzera gure
GABONETAKO
eskaintza bereziak!



Mikel Etxarri, Eneritz Busto eta Axier Arteaga, pozik, euren sariak eskuetan. Udal korporazioko hainbat kiderekin batera talde argazkia atera dute aitortza ekitaldia bukatu eta berehala. TXINTXARRI

Sari bat gehiago, bildumarako

Axier Arteaga, Eneritz Busto eta Mikel Etxarri. Lasarte-Oriako kirolaren iragana, oraina eta etorkizuna. Hiru herritar horiek saritu ditu udalak, herritarrek bozkatutakoa aintzat hartuta: 2017ko kirolari nabarmenenak eurak direla erabaki dute. Ahaleginari, sariak.

Iñigo Gonzalez

Ahalegin betean aritzen dira Axier Arteaga, Eneritz Busto eta Mikel Etxarri herritarrek, Euskal Herri zein estatu osoko kantxa, pista eta futbol zelaietan. Lasarte-Oriaren enbaxadore

lanak ederki egiten dituzte hiruek kirol arloan. Merezitako aitortza jaso dute hiruek udaletxeko pleno aretoan. Udalak ireki zuen bozketa epea, eta herritarrek erabakitakoari men eginez, hiru kirolariak saritu ditu.

Jesus Zaballos alkateak gidatu zuen iragan larunbateko ekitaldia. "Eredu dira herriko hiru kirolari hauek, belaunaldi gazteentzat batez ere", nabarmendu zuen. "Harro egon zaitezke orain arte lortu duzuenaz; ziur,

etorkizunean, are berri on gehiago emango dizkiozuela Lasarte-Oriari".

Eneritz Bustok, hunkituta, eskerrak eman zizkien ahaide eta lagunei. Saria jasotzea beretzat "ohorea" zela zehaztu zuen, atletismo pistetatik kanpo ere kirolarien lana baloratu egiten dela erakusten duelako. Aulkitik irribarretsu altxa zen Axier Arteaga pilotaria ere: "Ordu eta egun asko pasatzen ditugu entrenatzen, bizitzen ditugu une gozoak eta gogoragoak; horrelako egunek erakusten dute fruituak ematen dituela gure lanak".

Mikel Etxarrik ere ahaide eta lagunak ekarri zituen gogora: "Nik asko gozatzen dut futbolaz, bizitzan gehien gustatzen zaidana da, baina familiak eta lagunak gehiago sufritu dute, kanpoan eman ditudan urteetan batez ere. Eskerrik asko guztioi".

Bi txapel, buru bakarrean. Asegarceko pilotari Axier Arteagak gogoratzeko moduko urtea egin du: promozioako binakakoa irabazi zuen apirilean, Jon Erasun zizurkildarrarekin batera. Finaleko pilotari onena ere izendatu zuten. Maiatzean, berriz, buruz buruko txapela jantzi zuen.

Gogoratzeko moduko urtea

Eneritz Busto ere ederki aritua da: Espainiako junior txapelketan zilarra kolporatu zuen 60 metro hesietan, pista estalian. Uda partean, aldiz, urrea kolporatu zuen, 100 metro hesietako proban. 14.16 segundoko denbora eginda, junior mailako Europakora sailkatzeko zorian egon zen.

Mikel Etxarrik ia bizi osoa darama futboleko. Jokalari izan zen, gazte erretiratu eta entrenatzen hasi arte. Euskal Selektzioan dabil gaur egun.



INPRENTA
offset eta digitala

DISEINU GRAFIKOA

DISEINU EDITORIALA

Goza ezazue jai hauetan
Urte berri on!

antza

KOMUNIKAZIO GRAFIKOA

Zirkuitu Ibilbidea 2 · 20160 LASARTE-ORIA
Tel. 943 370 738 info@antza.eus
www.antza.eus

PLAZAN BAZAN



IZEIA


- Erreparatu Gabonetako zuhaitz honen apaingarri. Bola guztiak dute pare, salbu eta batek. Zein da?
- Zein ederrak diren elurrezko panpinak. Zenbat ikusten dituzu? Eta zenbat Olentzero?

MARGOTU



ELURRA MENDIAN

Zenbat animalia ikusten dituzu?



Pertsonak alde batera utzita, zenbat animalia ikusten dituzu irudi honetan?

Poltsa bete izarren argazki

Iñigo Artola herritarrak aurten ere argazki eta sinadura uzta handia izan du. Donostiako Zinemaldia, Beldurrezko Zinema jaialdia, Aste Nagusiko kontzertuak, partidak, motor ekitaldiak... herritarrak ez du atsedunik hartzen. Argazki hauek dira adibide argia.



I. ARTOLA



I. ARTOLA



I. ARTOLA



I. ARTOLA



I. ARTOLA

COPILASARTE
 • COPISTERIA • PAPELERIA

Eguberri on!
**FOTOKOPIAK TXURI BELTZEAN
 ETA KOLORE DIGITALA**

- Koadernaketak • Plastifikatuak
- Bulegoko materiala
- Material informatikoa

Ploterra, eskanerra eta planoen kopia
 Kale Nagusia 34, behe 1 • Lasarte-Oria
 Tel.: 943 366 930 - Faxe: 943 366 931
 copilasarte@euskalnet.net

AIZPURUA
Pinturak

- Pintura plastikoak bereziki
- Nahi duzun kolorea egingo dizugu momentuan

Eguberri on!

Zumaburuko industrialdea, Lasarte-Oria
 Tel.: 943 36 21 53

**INFORMATIKA
 MARTINEZ MULTIMEDIA**

Eguberri on!
Ezagutu gure eskaintzak, beste inora jo aurretik!

Uzturre plaza 2 behe - Tel/faxe: 943 36 05 91
 Lasarte-Oria

Maitte Erkizia
 Ile-apaindegia

Belen Iglesias
 Estetika zerbitzuan

Eguberri on!

Blas de Lezo kalea, 5 - 20160 Lasarte-Oria - 943 37 02 54 - www.maitteerkizia.com



Ander Casado Atzegiko boluntario lasarteoriarra. TXINTXARRI

"Gizarteak ez dizkie besteen eskubideak bermatzen"

ANDER CASADO ATZEGIKO BOLUNTARIOA

Atzegi elkarteko gazte talde batekin aisiako boluntario gisa ari da lasarteoriarra orain hiru urte eta erdiaz geroztik. Gazteekin sortzen diren harremanak eta beste hainbat gai ekarri ditu gogora

Maddi Noriega

Boluntariotzan badu esperientzia Ander Casado (Lasarte-Oria, 1996) herritarrak. Gazte atzerritar talde bati euskara irakasten aritu zen lehenik, eta udako kanpaldietan ere bizi izan ditu esperientzia bat baino gehiago. Orain hiru urte eta erdi Atzegiko (Adimen urriko pertsonen aldeko Gipuzkoako elkarte) boluntariotza probatzera animatu zen, eta bertan jarraitzen du oraindik ere. Gustura dabilela aitortu dio TXINTXARRI-ri, eta esperientziaren berri eman dio.

Orain zenbat urte hasi zinen Atzegin boluntario gisa?

Hiru urte eta erdi daramatzat Atzegin boluntario gisa. **Nola animatu zinen bertan hastera? Zerk bultzatuta?**

"EDOZEIN AITZAKIA NAHIKOA DA TALDEAREKIN ELKARTU ETA EDOZER GAUZA EGITEKO"

Down sindromea duen lagun bat daukagu, eta txikitatik ezagutu dugu errealitate hori. Horrela, lagun horren arreba eta nire arreba, Atzegin boluntario lanetan hasi ziren ni baino urtebete lehenago, eta beraiek animatuta, udako oporraldi batzuetan parte hartu nuen lehenengoz Atzegin. **Lehenagotik beste esperientziaren bat edo bizi izan al duzu?** Boluntario lanetan aritu naiz bai, baina beste esparruetan, ez aniztasun funtzionala duten

pertsonekin. Gazte atzerritar talde bati euskara klaseak ematen aritu naiz elkarte batean.

Lasarte-Orian bada Atzegin aritzen den beste boluntarioirik?

Bai. Zehazki Lasarte-Oriatik zenbat ari garen Atzegin ez dakit, baina nire inguruan lau pertsona gutxienez badabilta.

Nolako esperientzia da Atzegiko boluntario izatearena?

Engantxatu egiten zaituen esperientzia da Atzegiko boluntario izatea. Lehenengo aldiz probatzera joan eta lehen esperientzia hori bizi ondoren, gehiagorako gogoz amaitzen duzu. Udarako oporraldia izaten da Atzegirekin lehen esperientzia bat bizitzeko aukera, eta normalean, gehiagorako gogoz amaitzen denez, hortik aurrera hasten da asteroko, asteburu edo dena delako maiztasuneko boluntariotza.

Oso esperientzia politik izaten dira, gazteak oso jatorrak dira eta askotan, guk ematen diegunarekin alderatuta, bueltatzen diguten guztia izugarria da.

Zein profil motarekin aritzen zarete? Gazteak, helduak...

Adin guztietako pertsonak biltzen dira Atzegin. Gu aisialdian aritzen garenez, gazteekin aritzen gara gehienetan, baina adin askotako pertsonak osatzen dugu Atzegi. Oporraldian, berriz, adin guztietako parte hartzaileekin aritzea egokitu izan zait.

Larunbatetan ere taldetxo batekin aritzen naiz, eta horiek guztiak 18 urte baino gutxiago dituzte. Lasarte-Orian Atzegin aritzen diren sei gazte daude.

Taldeak egiterako orduan adina kontuan hartzen da, bai, baina izaeraren arabera egin ohi dira taldetxoak. Bakoitzaren gustuak eta kontuan hartuz.

Nolako harremanak sortzen dira horien eta boluntarioen artean?

Oso harreman politik sortzen dira. Beraiekin egon ostean, elkarrekin jarraitzeko gogoz bueltatzen gara etxera, eta edozein aitzakia nahikoa izaten da bereiekin elkartu eta edozer egiteko.

"KEINU TXIKIEN BITARTEZ PARTE HARTZAILEENGANDIK JASOTZEN DUGUNA IZUGARRIA DA"

Maitasun asko eskaintzen digute. Norbait sentimendu aldetik hotzagoa bada ere, ematen diguten maitasunarekin naturalago sortzen da sentimenduen azaleratzea.

Beste edozeren aurretik, lagunak gara. Askotan begirale izatearen sentsazioa ere galdu egiten dugu. Oso harreman naturalak sortzen dira gure artean.

Eta pentsatzekoa da boluntario talde huts bat baino gehiago zaretela. Lagun talde bat osatzen al duzue?

Bai, sare antzeko bat sortzen da, eta Atzegiko ekintzetatik aparte elkartzeko gara urtean zehar elkar ikusi eta gauza asko egiteko.

Atzegiko partaideekin oso harreman politik eta estuak sortzen dira. Esaterako, Lasarte-Oriako partaideekin elkartu izan gara Atzegiko ekintzetatik kanpo eta egin izan ditugu elkarrekin hainbat gauza; herriko festetan atera izan gara, adibidez. **Zenbatero biltzen zarete?**

Astero, larunbatero *Txolarte* izeneko programa bat eskaintzen da. Kuadrillen antzeko hamabost pertsonako taldetxoak dira *Txolarteak*, eta larunbat arratsaldetan elkartzeko gara planak egiteko. Urtean zehar programazio bat zehazten da.

Asterokoaz gain, udaran, Aste Santutan eta Gabonetan oporretara joaten gara, eta horretaz gain urtean bi asteburutan irteerak egiten ditugu. Gazteek oso gustura parte hartzen dute normalean.

Zein da zehazki zure eginbeharra Atzegin? Zein plan egiten dituzue? Askotan pentsatu ohi dugu laguntza ematera doazela boluntarioak, ezta? Baina kanpainaren aurkezpenean adierazi zenuen zuek ez zoaztela gazte horiei laguntza ematera...

Atzegiko aisialdi alorreko begiralea naiz ni. Bakoitzak funtzionatzeko modu ezberdina dugu. Ni nire taldearekin elkartzeko gara, eta lagun artean egiten ditugu ekintzak. Boluntariotzaren okerreko pertzepzioa oso zabalduta dago: boluntarioak partaideei laguntza ematera goazela uste dute askok, eta nik ez dut uste hala denik. Eguneroko gauzak egiteko gaitasuna dute, eta hori ikustarazteko aukera eman behar zaie. Gauza horiek elkartrukatzeko gaude gu beraiekin.



Atzegiko parte hartzaileak Lasarte-Oriako boluntarioekin batera udaran egindako bidaia batean. ANDER CASADO

Nire eginkizuna beraiekin igarotzen ditugun momentuz gozatzea da. Noski, momenturen batean boluntarioon laguntza behar badute, hor egongo gara, baina lagun moduan momentuak konpartitzea da gure eginkizuna.

Nola antolatzen zarete?

Txolarte bakoitzak koordinatzaile bat edo bi izaten ditu. Koordinatzaile horiek

urteko programa egiten dute, eta *Txolarte* bakoitzaren arabera, programazio hori parte hartzaileekin partekatzen da. Aldaketaren bat egin nahi bada edo beste zerbait gehitu nahi bada badago aukera, baina hori taldearen arabera izaten da.

Normalean urte erdiko plangintza egiten da: urtarrilera arte bat, eta urtarriletik aurrera beste bat.

Boluntariotza lanak ere ezinbesteko konpromisoa dakar.

Bai, noski. Beste edozertarako behar den adina konpromiso eskatzen du boluntariotzak ere.

Zer eskaintzen diezue boluntarioek gazteei, eta eurek zuei?

Guztia eskertzen digute. Gu askotan harrituta geratzen gara eskerrak ematen dizkigutenean. Ez lukete ezer

eskertu behar, alderantziz, guk eskertu beharko genieke eurei. Egunerokotasunean keinu txikien bitartez beraieganetik jasotzen duguna izugarria da. Maitasuna adierazteko ez daukate inolako mugarik. Gu, ordea, hotzagoak gara horretan, ez dugu hain erraz gure maitasuna adierazten. Askoz gardenagoak dira, eta eskaintzen duguna

baino mila aldiz gehiago jasotzen dugu bueltan.

Gaur egun gizarteak ez dizkie gainontzekook ditugun eskubideak bermatzen, eta horren aurrean, gertu sentitzen gaituztenoi dena ematen digute. Egun aldatzen ari da egoera, orain hogeita bost urte egoera ezkutukoagoa bazen ere, egun lagunekin elkartzen dira, ekintzak egiten dituzte, beste edonoren gisara.

hator hator neska-mutil etxera!

#SalatzenDut

EUSKO JELA

ANASTI
- TABERNA -
ILARGI

Tiburtzio
Artizar

Tuvia Bellia
TB
Rock & Teal

TRUMOI
TABERNA

AVENIDA
Taberna/Jatetxea

"Ispiluaren aurrean jartzen gaitu bizikidetzaren txostenak"

BERTHA GAZTELUMENDI ETA SABINO HORMAZABAL ARGITUZ TALDEKO KIDEAK

Lasarte-Oriaren iragan hurbilan sakondu dute Argituz elkartearen kideek, memoriaren txostena egiteko. Zauriak orbaintzeko daude, baina itxaropentsu agertu dira elkartearen kideak, "zubiak" eraikitzen ari direlakoan. Zubi lan hori egiteko tresna da txostena.

Adrian Garcia

Urteetako gatazka eta bortizkeriaren ondoren, atzera begiratzeko garaia iritsi da. Oraindik badaude auzi asko konpontzeko, baina beste batzuen gainean bizikidetzaren arrunt bat hasteko oinarria badago. Horrela uste du Argituz giza eskubideen aldeko elkarteak. Horretarako, baina, ezinbestekoa da gertatu dena kontatzea. Horixe egiten saiatu dira, hain zuzen, Bertha Gaztelumendi eta Sabino Hormazabal Argituzeko kideak. Memoria partekatuta baterantz txostenean jasotuz Lasarte-Oriaren jazoetako giza eskubideen urraketak. Eta ez dira gutxi izan: bederatzi hilketak, atentatuak, zaurituak, torturatuak, mehatxatuak,

bizkarzainekin bizitzera derrigortuak, urruneko espetxeetan kartzelaratuak... Eskuragarri dago txostena udaleko weborrian.

Txosten lodia da Memoria Partekatuta Baterantz lana. Nolatan hasi zineten ikertzen Lasarte-Oriako idarkeria politikoko kasuak?

Argituzek memoria partekatuta inguruko lehen lana Errenterian egin zuen, 2014. eta 2015. urteen artean. Gero Lasarte-Oria eta Elgoibarreko ikerketa lanak etorri dira, eta orain Arrasate eta Andoainen ari gara. Txosten hauek guztiek jatorri berbera dute, hau da, udal taldeek bultzatuta izan dira, edo Lasarte-Oriaren kasuan bezala, Bizikidetzaren Udala Mahaian hartutako erabakiaren ondorioz

sortu dira. Udal talde ordezkarien asmo partekatua eta adostuan dute oinarria, eta horretan datza horien kementa. Jatorri ideologiko batekoek zein besteek egia ezagutzeko jarritako interesaren fruitu dira. Lanaren helburua da gertatutakoa ulertaraztea, indarkeriazko egiteak zerrendatuz eta elkarrizketatutako pertsonen testigantzak bilduz. Ez da epaiketarik egiten, gertatutakoa erakusten da.

Gertaera horien inguruan jende asko elkarrizketatu duzue txostena lantzeko. Esango al zenukete gatazkaren garai horietan herria zatituta zegoela?

Oraindik ere zauriak ez daude itxita, oroimena gordetzeko tresnak eta denbora behar dira zauri horiek osatzeko, baita

jarrerak aldatzeko ere. Hala ere, "besteak" onartzeko bidean lehen urratsak emanak daude, ezberditasunak errespetuz begiratzuz, besteak entzunez...

Txostenean nabarmendu duzue "zubiak" eraikitzen joan direla. Nola ikusi duzue elkarbizitza herrian?

Zubiak eraikitzearena elkarrizketatu ditugun pertsonen esaten dute. Oinak lurrean ondo jarrita, eta oraindik ere mantentzen diren oztopoak alboratu gabe, aldaketa baikorretan arreta jartzea gustatzen zaigu. Adibidez, txostenean ageri da Lasarte-Oriako ETAre azken hildakoaren, Froilan Elespe PSE-EEeko zinegotziaren, inguruan egiten diren balorazioak erabateko batasuna dutela ideologia politiko ezberdineko pertsona guztien artean. Ez da gure inpresioa bakarrik, txostenean jasota dago elkarrizketatuek horri buruz pentsatzen dutena. Edo auzoen arteko harremanak zabaltzen ari direla esaten denean, jatorrizko "identitate" ezberdinen artean. Zubi horiek bi zentzutan eta libreki ibiltzeko balio izatea espero dugu.

Memoria ariketa hauek zertan balio dezakete bizikidetzaren sustatzen?

Txostenaren edukia gure ispiuaren aurrean jartzen gaitu. Hor azalaratzen da, neurri handi batean, izan garena eta garena. Gertatu zaigunaren memoria ezberdinak partekatzea atzera begiratzeko gain, gure orainari eta etorkizunari begiratzen ere laguntzen digu. Gertatutakoa ondo ezagutzeak berriro ez gertatzea suposa dezake, datozen belaunaldiek etorkizuneari indarkeria baztertu dezaten gatazkak konpontzeko. Lan hau egin baino lehen, Lasarte-Oriaren

Bizikidetzaren Taldea edo Bizikidetzaren Mahaia martxan zegoen, besteak beste. Lan hau tresna berri bat da denontzako.

Zuek txostenean bertan esaten duzue ez dagoela egia bakarra, memoria beti dela partekatua. Gizartean, ordea, erakundeek eta eragile askok lehia antzeko bat dute gertatu dena kontatzeko. Nola ikusten duzue kontakizunaren borroka hori?

Guk ez dugu korapilo horretan trahatu nahi. Zentzuzkoa da onartzea kontakizun bakar bat ez dela izango; egia bakarra ez dago, batzuek inposatu nahi badute ere. Gure ekarpena da memoria partekatuta baterantz bidea egiteko tresna bat eskaintzea, lanaren izenburuan esaten den bezala. Hau prozesu bat da, eta ikerketa honekin ez da amaitzen. Honen ostean beste datu eta testigantzak etorriko dira txostena aberasteko, baina gehituko zaizkion egiteak eta esperientziak, orain bezala, irizpide bati jarraituz jasoko ditugu: giza eskubide urraketa berberari, eskubide eta aitortza berberak onartzea, bazterkeriarik gabe.

"EGIA EZAGUTZEA DA GIZA ESKUBIDEEN ZUTABEA. EGIARIK GABE EZ DAGO JUSTIZIARIK"

"TXOSTENAREN HELBURUA DA GERTATU DENA EZAGUTZEA, EZ EPAIKETARIK EGITEA"

**%20ko
deskontua
eguzkitako
betaurrekoetan**



IRIGOYEN

OPTIKA

Gabon hauetan, oparitu osasuna!

**2018 zoriontsua
opa dizuegu!**



Largoenea 1, Lasarte-Oria - Tel. 943 37 10 47





Sabino Hormazabal eta Bertha Gaztelumendi, txostenaren aurkezpenean, urriaren 5ean, Manuel Lekuona kultur etxean. TXINTXARRI

Lasarte-Oriako Udalak eman zizuen memoriaren txostena egiteko enkargua. Orain arte udalak izan dira horren alde egiten ari direnak. Errazagoa al da horrelako ariketa bat egitea herri batean? Nazio mailako memoria txosten bat egiteko bidea udalerrietatik hasi behar al du?

Horrelako dinamika edozein herritan egin daitezke. Esan bezala, txostenari ekin baino lehen udaleetan sukalde lana

egin da, talde politikoaren ordezkariekin artean eta herriari zuzendutako ekimen batzuren bitartez. Gero, txostenak zabalduen duen bideari segitu behar zaio: egia sakonduko duten ekimenak suspertu eta gizarte ehuna sendotuko duten ahaleginak egin behar dira. Gure esperientziaren arabera, errazagoa da eremu lokaletik hasia. Behetik gora eginez, iraganean gertatutakoaz ahalik

eta gehien berreskuratu ahal izango da, gertaerak sailkatuz, ezer nahastu gabe. Udalerrietan gertatutakoa ezagutzen da, herrian bertan aktore horiek bizi direlako, positiboak eta negatiboak. Gertakarien lekukoak izan diren pertsonak daude. Ezaugarri horiek indarkeria gainditzeko aukera zabalagoak ematen ditu, eta horrez gain, leku fisiko berbera errespetuz partekatzeo aukerak

ere hazten dira. Dekretuz ez da hori lortuko.

Errenteriako kasuan PP ere batu zen txostenera. Lasarte-Oriango zergatik ez? Txostenean Alejandro Saenz PPko zinegotzia elkarrizketatu duzue.

Txostenean parte hartzeko erabakia libre da. Alejandro Saenzek txostenean parte hartu du, eta bere testigantza isla hortxe dago. Alejandro, gainera, ETArekin biktima da; bere aitona hil zuten herri honetan. Beste biktima batzuekin ere izan gara, eta ez dute txostenean parte hartu nahi izan. Lana biktimengan zuzentzea ez da ikerketaren helburu bakarra. Txostenetik abiatuta, aukera berriak zabaldu dira tokian-tokiko biktimen politika lantzeko. Prozesu partekatu honek errespetuz jokatu behar du, eta Lasarte-Oriako aniztasuna erakutsi behar du. Esaterako, Elgoibarko Udalean PPren ordezkaritzarik ez dago, baina ikuspuntu politiko horretako pertsonen iritzia jaso dugu. Ahots guztiak entzun behar dira.

Eztabaida piztu dezakeen gaia da. Hilketak eta indarkeria izan dira Euskal Herrian arrazoi askogatik: emakumea izateagatik, sexu orientazioagatik, arrazagatik, erlijioagatik... Erabateko bakea lortzeko horien memoria egitea beharrezkoa ikusten duzue? Aparte landu behar dira gai horiek? Ez dute gatazka politikoarekin zerikusirik?

Jakina, garrantzitsua da memoria horiek guztiak jasotzea, hala esaten dugu gure txostenetan. Uste dugu horrela gizartearen gertatzen denaren errealitatea zehatzagoa izango dela. Giza eskubideen urraketa guzti-guztien irakurketa bateratua egingo da noizbait; egun hori iritxiko da, dudarik ez dugu. Ikerketa berean sartu ez izanak ez du esan nahi zenbait urraketa besteak baino garrantzitsuagoak direnik. Urraketa guztiak bere lanketa eta aitortza izan behar dute udal mailan. Baina gure txosten honi dagokionez, motibazio politikoa duen indarkeria jaso dugu, politikoa terminoa modu estu batean ulertuta. Zentzu zabalago batean irakurriz gero, orduan bere gain hartu beharko luke txostenak giza eskubideen urraketa guztiak: sexu, arraza, genero, erlijio eta beste arrazoi direla medio egindako biolentziak. Gai horiek guztiak politikoak direlako.

"Motibazio politikoa". Hitz hori ek askotan erabiltzen dira. Zer esan nahi dute zehazki?

Kasuen deskribapena egiteko balio duen kontzeptu teknikoa da. Biolentzia ezberdinak eta giza eskubideen urraketa deskribatzeko nazioartean erabiltzen den sailkapen terminoa da. Ez da biolentziaren justifikazioa, ezta gutxiago ere. Eta ez da kasualitatez sortu: asmo politikoak bultzatutako kasuak bere gain hartzen ditu.

HATOR, HATOR



KALE NAGUSIA, 8

JATERA ETA...

NESKA-MUTIL ETXERA



EDATERA!

PABLO MUTIOZABAL, 4



Erasotzaileen ekimenak asmo politiko horri lotuta daudelako: biktimak aukeratzekoan, errebundikazio eta helburuak bilatzerakoan, indarrezko egiteekin gizartean edo bizitza politikoan eragin nahi denean...

1956. urtetik 2016ra bitarteko denbora tarteaz aztertzea erabaki duzue. Zergatik denbora tarte hori? Urte horietan gertakari esanguratsuak eman ziren: migrazio mugimenduak, Munduko Euskal Batzarra Parisen, azken makiak... Francoren erregimenaren kontra saiatzen den belaunaldi berri bat sortzen da, baina gerra osteko erresistentziaren praktikaren ereduetatik kanpo aritzen da. Langileen borroka berritzen dira 1956an, eta ikasleen lehen protestak ere ematen dira. Horren aurrean, erregimenaren erantzuna da lehen salbuespen estatua ezartzea. Orotara hamaika izango dira euskal lurraldeetako batean jarritako salbuespen egoerak.

Bestetik, estatu eta erkidegoko biktimeen legeak 1960ra jotzen dute, eta Lasarteko ume bat, Begoña Urroz, DRILEk eginiko atentatuan hil zen urte horretan... Beraz, logikoa da ikerketa herri honetako azken 60 urteetan zentratzea.

Askok esango dute gatazkaren muina kanpoan geratu dela, alegia, 1936ko estatu kolpea.

Guk atal edo garai hau landu dugu. Beste batzuk estatu kolpearen ostekoa landu dute.

"ZURIAK EZ DAUDE ITXITA, DENBORA ETA MEMORIA TRESNAK BEHAR DIRA HORRETARAKO"



Udal ordezkari guztiak, PPko zinegotzia ezik, txostena eskuetan. LASARTE-ORIAKO UDALA

Lasarte-Orian esaterako, Islada Ezkutatuak garai horri lotutako ekimenak bultzatzen ditu. Batak bestea osatuz joango gara hari guztia izan arte. Dena da beharrezkoa, eta ez da ezer kanpoan utzi behar.

Euskal Herrian memoriarik egingo ez balitzateke zer eragin kaltegarri izango luke? Espainian frankismoaren ondoren ez da Egiaren Batzordea eratu, eta ez da benetako memoria ariketarik egin, erakunde publikoen partetik behinik behin. Horrek izan al du eraginik ondoren Euskal Herriko gatazkan? Beste herrialdeetako adibideak aztertu dituzue?

Iragana arakatzeko munduan ekimen sorta zabala egin dute, baina zoritxarrez, oraindik ere, zenbait tokitan guztia egiteko dago. Urrutira joan gabe,

Espainiako Estatuan ez daude hemen pixkanaka eta asko kostata onartzen ari diren legeak. Oztopo handiak daude, baina ahalegin handiei esker bidea egiten ari gara.

Egia ezagutzea da giza eskubideen oinarritzko zutabea. Egiarik gabe ez dago aitortzarik, ezta justiziarik edo erreparazioaririk ere. Egiaren Batzorde bat, nazioarteko babesarekin eta adostasun zabal batekin, oso tresna ona izan daiteke. Edozein modutara, tokian-tokiko lan hauek, 107/2012 Dekretuaren balorazio batzordea, Memoriaren Plaza eta bikitima guztiei testigantzak jasotzea ere badira egia esateko moduak.

ETAren biktimak ez ezik, beste taldeen eta estatuko krimenen biktimak ere jasotzen ditu zuen

txostenak. Legeak babes bera ematen al die alde bateko eta besteko biktimei? Pauso gehiago eman behar dira alor horretan?

Espainiako Estatuan kaltegile edo erasotzaileen arabera idatzi dira legeak. Erasotzailea nor den arabera arautu da. Alderantziz behar du izan, biktimaren ikuspuntutik sortu behar da legea. Hasierako legeen atzetik beste berri batzuk etorri dira, baina aitortza eta erreparazio eskubideak ez dira biktima guztientzat berdin izan. Batez ere polizien biktimek, torturaren kasuak barne, sumatu dute babes falta hori. Izan ere, Eusko Legebiltzarrak onartu zuen EAEn 1978 eta 1999 urteen artean izandako motibazio politikoko giza eskubideen urraketak jasan dituzten

biktimak aitortzea, eta haiek erreparatzea. Baina Estatuko abokatutzak errekurtsua jarri du. Giza eskubideen Nazioarteko erakunde eta arauak argi eta garbi diote ezin dela bazterkeriarik egon biktimen artean. Bada printzipio hau betetzeko garaia.

Txosten "bizia" dela diozue, irekita dagoelako jendearen ekarpenei. Jaso al dituzue dagoeneko?

Kultur etxean txostenaren aurkezpenaren ekarpenak egiteko modua adierazi genuen. Udalaren webgunearen bitartez egin daitezke, edo horretarako jarri diren baliabideen bidez. Udalak eta Bizikidetzeta Mahaiak jaso eta bideratuko dituzte. Animatu nahi ditugu herritarrak ekarpenak egitera, memorian aurrera egiteko.

MUGICA & ABURRUZA

aseguru artekaritza, S. L.

*IBILGAILUAK

MOTOZIKLETAK
AUTOMOBILAK
AUTOKARABANAK
FURGONETAK
KAMIOIAK...

*MERCATARITZA

*BIZITZA ETA
ERRETIROAK

*OSASUNA

*ISTRIPUAK ETA
GAIKOTASUNAK

*ERANTZUKIZUN
ZIBILA

*ETXEBIZITZA ETA
KOMUNITATEAK

*INBERTSIOAK

*PYMEAK...


Eguberri on!



MUGICA

Ganbo kalea 1, LASARTE-ORIA - Tel.943 36 22 75 & FAXA: 943 37 24 13



Zozketa eguna TXINTXARRI-n

Txintxarri aldizkariak bere bezeroak eta Ttakun Kultur Elkarteko bazkideak saritzeko Errigorako bi saski zozketatu ditu. Maite Estetikari egokitu zaió 100 bezeroen artean oparia. "Ezustean" eta "pozik" hartu dute albistea Maite Arroyo, Maria Ugidos (irudia) eta Ainhoa Santiago langileek. Gainera, bezero berezia da Maite Estetika. Txintxarri-ren sorreratik jarri du publizitatea. "Ez da soilik negozioa sustatzeko. Euskararen aldeko apostua egin genuen, herrian euskarazko aldizkari bat egon behar duelako", esan du Arroyok.

Bazkideen artean zozkatutako otarra, berriz, Berta Egitegi herritarrari egokitu zaió. Honek ere berria "poz-pozik" hartu duela aitortu digu. Ttakun Kultur Elkartearen sorreratik da bazkide, eta euskara eta kultura sustatzeko lanari eutsi behar zaiola azaldu du.



TXINTXARRI



TXINTXARRI



Lasarte-Oriako ATERPEA elkarteak Eguberri zoriontsuak eta urte berri on opa dizkizue



LASARTE-ORIA
TRATU ON BAT
UN TUDU TRATU



LASARTE-ORIA
VIZUA - ARANTZAMENDU



Euzkadi,
euzkera, berri onak
EUSKAL JAIURBARRITZA
EUSKALIA VASCO

Nerea Eizagirre

Juanito Urkizu Sustaeta *Katugorri* (Ondarroa, 1901-1982) futbol jokalaria eta entrenatzaileari buruzko liburua argitaratu berri du Irene Urruzola Arratibelek (Lasarte-Oria, 1972). Hainbat taldetan ibili zen Urkizu, eta besteak beste, Athleticen lau liga eta zazpi kopa eskuratu zituen. Liburua Ondarroan dago, salgai, baita Lasarte-Oriako Carretero liburu dendan ere. *Katugorri*-ri eta liburuari buruz solastu gara Irenerekin.

Nor da Juanito Urkizu Sustaeta *Katugorri*?

Juanito Urkizu ondarroarra zen. Familia onekoa. Bera eta futbola garai berekoak dira. Horregatik, liburuan Estatuko futbolaren sorrerari buruz ere ari naiz.

Hasieran futbolearen ezin edozein ibiltzen. Hauek Orduñako jesuitetan ikasi zuten, eta hara ezin zen edozein joan. Ingalaterrarekin lotura zegoen bertan, eta horrela hasi zen futbolearen. Berak jarraitu zuen futbolearen, orduan amateurrek ziren, ez profesionalak. Futbola beste era batera bizitzen zen eta ez zegoen gaur egungo profesionaltasun hori, ezta hainbesteko dirurik ere. Afizioagatik egiten zuten. Gaur egungoarekin ez zuen zer ikusirik. Bai jokalaria, baita ikustera joaten zirentzat ere beste gauza bat zen. Futbolaren hasierak ziren.

Osasunan hasi zen. Futbolaren sorrera ulertzeko ondo dago, ze ez da gaur egun bezala. Berak Osasunan bost urte egin zituen, baina tarte horretan Espanyolekin Ameriketara jira bat egitera joan zen eta beste bat Real Madrilekin. Esaterako, Realarekin ere jokatu zuen partida bat. Gaur egun hori ez da ulertzen. Orduan taldeak beste taldeetako jokalariekin indartzen ziren.

"Beste jokalaria batzuk haien irudia gehiago saldu zuten"

IRENE URRUZOLA ARRATIBEL JUANITO URKIZU SUSTAETA *KATUGORRI* LIBURUAREN EGILEA
Ondarroako Udalak sustatuko beka baten bitartez Juanito Urkizu Sustaeta *Katugorri* futbol jokalaria eta entrenatzailearen 50 urteko kirol ibilbidea jaso du lasarteoriatarrak

Garai horretan, euskal futbola eta katalana zeuden; eskolarik garrantzitsuenak ziren. Eta Madrilen zegoen beste eremua. Hiru gune horiek zeuden. Horien artean zegoen Estatuko garailea. Ez da gaur egun bezala. Bertako jendearekin jokatzeko. Garai horiek dira pixka bat kontaktatzen direnak.

Garai hartako abenturak ere kontaktatzen ditut. Ameriketara egin zuten bidaia jarraitzen duzu eta bidaiko komeriak ezagutu ditzakezu. Gero han mugitzeko... irakurtzen duzu eta gaur egun ordu gutxitan egiten den zerbait, orduan pentsa...

Futbolaren garapena amateurretik profesionalera bizi zuen, ezta?

Real Madrilen profesionalizatzeko bide horretan hasten dira; 1927tik 29ra da hori. Berak lortzen du Athleticera bueltatzea. Berak etxe

ondoan egon nahi zuen. 1929an da hori. Horiek dira Athleticen garairik onenak. Entrenatzaile mister Petland zen eta, Urkizu jokarietako bat izan zen. 1935era arte izan zen jokalaria.

Horren harira, futbolearen baloreak nola aldatu diren ere ikusi daiteke. Orduan ez zegoen oraingo handi nahirik edo aurrekonturik, galtzerdi soil batzuekin jokatzeko zuten. Lehiakortasuna handitzen joan zen heinean, egurra ematen hasi ziren eta orduan zango-babesak erabiltzen hasi ziren.

Noiz hasi zen entrenatzaile lanetan?

Gerra izan zen eta jendea sakabanatu egin zen. Gerra ondoren, Roberto Echevarriak hartu zuen taldea eta oso gutxi iraun zuen. Juanitori deitu zioten taldea hartzeko eta berak osatu

zuen aurrealde mitikoa: Iriondo, Zarra, Panizo...

Hauek guztiak Athleticeko garairik onenak dira. Gerra aurrekoak eta ondorengoak, lau liga eta zazpi kopa.

Ostean, Barakaldo, Oviedo, Murtzia, Aurrera, Levante, Ourense, Alaves... Aurreran esate baterako, nahiz eta historial handia izan, doan egon zen. Herriko taldeari laguntzeko egin zuen. Garaiak desberdinak dira, gauza bakoitza bere testuinguruan ulertu behar da. 50 urte egitea ez da erraza.

Zergatik deitzen zioten *Katugorri*?

Mister Petlandek jarri zion ezizena dirudienez. Ile gorria zen Juanito eta oso mugitua. Aurpegia ere gorri jartzen omen zitzaion eta horregatik ezizena. Guri *Katugorri* bezala iritsi zaigu; garaiko prentsan *Gato rojo*.

Nola sortu zen liburuaaren proiektua?

Ondarroako Udalak ekimen bat sortu zuen, urtero beka bat emateko kirolarien memoria biltzeko eta horietako bat izan zen Juanito Urkizurena. Deialdia 2014an egin zen eta 2015ean aurkeztu nuen lana.

Egile eskubideak nire esku egon direnean guztia mugitzen hasi naiz. Horrelako lana egin eta gero, pena da emaitza ez ikustea. Ero moduan liburua nola argitaratu begiratzeko izan naiz. Autoekoizpena izan da. Duela hamabost egun argitaratu zen. Emaitzarekin oso gustura nago.

Nola jakin zenuen deialdiari buruz?

Nik pertsonaia ezagutzen nuen. Ondarroarekin harremana dut eta beka atera zenean, komentatu zidaten. Proiektua aurkeztu nuen eta irabazi nuen.

Zenbat denboran egin behar izan zenuen lana?

Sei hilabete izan nuen egiteko. Sei hilabete zertarako den arabera denbora asko da, baina informazioa oso sakabanatua zegoen, talde pila askotan egon zen entrenatzaile eta jokalaria bezala eta zoramena izan zen. Astelehenetik igandera topera bukatzeko.

Batetik bestera ibili zara, orduan?

Bai, horrela da. Talde guztietako artxiboak pasa ditut, ze liburuetan ez dago gauza handirik Urkizuri buruz. Gauzaren bat aurkitu dezakezu, baina datatan ere ez dira ados jartzen. Horrela ezin nuen ezer egin eta iturrietara jo behar izan nuen. Ze eskolatan ibili zen, udalak... pentsa noizko kontuak diren.


Liburua biografia da. Koherentzia bat emateko datak eta datuak zehatzak izateko, horrela egin behar zen. Deusto, Osasuna, Real Madril, Euskal Selektzioa, Espainiako Selektzioa, Athleticen

aldika 
produktu bereziak

ahatekinak
ehizak eta hegaztiak
bakailao gezatua
onddoak
marinatuak
olagarroa

Industrialdea 19-20 • Tel.: 943 37 70 89 • aldika@euskalnet.net

Zorionak eta
Eguberri on!!



ditu urterik garrantzitsuenak jokalaria eta entrenatzaile bezala, Athleticen historian titulu gehien dituen pertsona da. Erretiroa hartu arte Ondarroako Aurreran jarraitu zuen.

Paperezko iturriak jaso zenituen bakarrik?

Artxiboez gain, bera ezagutu zuten ahal zen pertsona gehienekin hitz egin nuen. Abenturak eta gauzak ezagutzeko. Entrenadore bezala bere jokalaria izan zirenak, horiek dira bizirik daudenak, 40eko hamarkadan jaioetakoak, futbolaren inguruan dabilen jendea, Ondarroako jendea eta familia. Lan polita, oso polita izan da.


Bere bizitza pertsonalari buruz ere hitz egiten duzu, orduan?

Bere bizitza pertsonalari buruz gutxi dago. Hasieran sarrera moduko bat dago, testuingurua kokatzeko, bere familia herrian kokatzeko. Ze garai horretan, esan bezala, nor hasten zen futbolera jokatzen.

Familiak laguntzen dizu eta etxeokoa nola bizi izan duten jakiteko haiekin hitz egin nuen, baita berak nola bizi izan zuen jakiteko ere. Prentsa pila dago, baina familiarekin hitz eginda bakarrik jakin dezakezu, esate baterako, 70 urterekin ehun baino gehiago flexio egiten zituela. Kirol diziplina zuen pertsona bat zen eta oso barneratua zuen hori. Horrelako xehetasunak familiak bakarrik eman ditzake, zail izango da hori prentsan aurkitzea.


Aipatu duzunez, Juanitori buruz ez dago informazio askorik...

Bera ez da izan oso protagonista, beste entrenatzaile edo jokalaria batzuk bere irudia gehiago saldu zuten. Berak Athletic maite zuen izugarri. Izan zen talde guztietan utzi zuen bere arrastoa, baina berari gustatzen zitzaiona zen bere herrira joatea eta arrantzan ibiltzea. Beste batzuk bizitza paralelo bat egin



Juanito Urkizu Sustaeta Katugorri. Futboleko ibilbidea Irene Urruzola Arratibel

Juanito Urkizu (Ondarroa, 1901-1982) futbol-jokalaria eta entrenatzaileak 50 urteko ibilbide luzea bezain oparora egin zuen futbolean. Talde askotan aritu zen jokalaria zein entrenatzaile lanetan, baina, batez ere, Athletic Club taldean lortutako garaipenen ospeagatik dugu ezagun.



zuten, publizitatea edo beste istorio batzuetan sartu ziren, baina berak garbi zeukan herrikoa zela.

Hitzaldia ere eskaini behar izan zenuen lana aurkeztean, ezta?

Lanak eskatzen zuen aurkezpena egitea herriaren aurrean. Eta egindako lana eta topatutakoa jendeari erakutsi genion.

Lana aurkeztu nuenean 40 minutuko dokumental batekin batera egin nuen. Baina dokumentala ez da argitaratuko. Hitzaldian erakutsi genuen.

Elkarrizketak dira Athleticen jokalariei, familiari, Ondarroako jendeari edo herriko bere jokalariei egindakoak. Horiek kontatzen

dute: “Jo ba hau eta hau egiten zigun entrenatzaile zenean”.

Baina ez da Juanitoren bizitza oinarritu duzun bideo lan bakarria izan, ezta? Hako hako dokumentala ere egin zenuen

Bai, horrela da. *Thinking Football Film Festival* jaialdian parte hartzeko aukera sortu zen eta *Hako hako* dokumentala egin nuen. Arte Ederrak ikasi nituen eta liburuzaina naiz. Zizurkilgo Plazida Otaño liburutegian egiten dut lan. Herri txiki bateko liburutegia da, baina ez da ohiko liburutegia. Arte erakusketak, tailerrak... antolatzen ditugu. Bertan bideoak ere egiten ditugu eta hortik etorri zen dokumental motza egitearen ideia.

Nire lan ibilbidearekin eta lan hau egiterakoan izandako esperientziekin konturatu nintzen hainbat gauzetaz. Ondare pila bat dago. Horren atzean bilketa lan handia. Artxiobak sortzen lana dago. Ez bakarrik dokumentu fisikoak, baita ahozko lekukotzak ere. Ez badira jasotzen, gero jende hori hiltzen denean galdu egiten da.

Eta niri hori gertatzen ari zitzaidan nire lanean. Gauza asko bildu ditut, baina pertsona batzuk 80 bat urte dituzte eta orain ez bada hau egiten hori dena galdu egingo dela konturatu nintzen. Eta horrekin lotutako zerbait egin nahi nuen *Hako hako*.

Hortaz aparte, *Hako hako* Ondarroako esamolde bat da, *Aspaldi, aspaldi* esan nahi du. Ondarroako hiztegia oso aberatsa da, lan handia egiten ari dira euskararen inguruan eta oso polita iruditu zitzaidan hori ere islatzea.

Zer ikusi daiteke bideoan?

Bi minutuko topea genuen. Ume bat ateratzen da garaiko patata-soro batean. Ze lehengo futbol

zelaia ez ziren oraingoen antzekoak, eta guztiek diote patata-soroak zirela. Bere aitona beste garai bateko kontuak kontatzen dizkio, bera saiatzen da guztiak gogoratzen, baina aitona gauzak ere ahaztu egiten zaizkio. Eta inork ez baditu gauza horiek biltzen, iritsiko da momentu bat, non izar horiek guztiak galduko diren, ez direnak ezagunak izango.

Aipamen berezia lortu zenuen lanarengatik eta San Mamesen ikusi ahal izan zen.

Bai, birentzat eman zizkiguten gonbidapenak. Oso hunkigarria izan zen San Mamesen bideoa ikustea. Oso polita izan zen. San Mamesera bueltatu zen Urkizu. Oso sinbolikoa eta polita izan zen.

Durango autoekoizleen gunean izan zara. Zer moduzko esperientzia izan da?

Erakusleio bat da guretzat, ezegunak garen jendearentzat, lehen diska edo liburua argitaratzen dugunentzat. Eta pozik nago jendearen erreazioarekin ere.

Jende pila ezagutzen duzu ere, zuk bezala proiektua ateratzen dutenak, dendetako jendea, etab.

Esperientzia oso polita de eta hor egon behar da. Bertatik pasatzen den jende guztiari zure lana ezagutzera ematen diozu.

Orokorrean azokara jende pila hurbildu zen eta gure erakusmahaira ere. Saltzea zaila da. Famatuak saltzen dute gehien.

Pozik nago ere antolakuntzak bere aldetik egiten duenarekin. Gu prentsan agertzeko egiten duen lana... Oso gustura sentitu naiz. Erosle bezala joan izan naiz eta orduan ez duzu pentsatzen atzean dagoen lana. Baina beste gauza bat da zuk barrutik bizitza.

BON 10+

Zure 20 euroak 30 bilakatzen dira.

Euskadi, ausolana, bien común
EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
TURISMO, MENDIARITZA ETA NORTIARI JASO DEPARTAMENTO DE TURISMO, CULTURA Y CONSUMO


EUSKOMER
Federación EUSKOMER
Federación EUSKOMER

www.bono10.eus



XIXUKO, MARI DOMINGI ETA OLENTZERO BADATOZI!

Abenduak 24, Lasarte-Oria



12:30/ TXOKOLATE JANA Okendo plazan

16:45/ KALEJIRA Loidibarreneko frontoitik Okendora eta Olentzerori ongi etorria

18:00/ EKITALDIA OKENDON:

Olentzero, Mari Domingi, Xixuko eta Porrotx
GUTUNEN JASOTZEA

18:30etatik aurrera: Ttiriki Ttarraka musika eskola.

20:00etan/Amaiera

*Eguraldi txarrarekin ekitaldia Loidibarren frontoian izango da

Eguberrietako Haur Parkera goaz!



LH3, LH4, LH5 eta LH6koentzat BEC-era irteera

Ordutegia: 9:30etik 18:30era

Prezioa: 24€ Ttakuneko bazkideak, bazkide ez direnek 27€

Izen-ematea: aisia@ttakun.eus, 943 37 14 48 edo Ttakunen bulegoan



ANTONIO URRUZOLA AROTZEGIA

Zorionak eta
Eguberri on!!



ZURGINTZA
eta
EBANISTERIA

Etor zaitez
erakusketa
ikustera!

Asteasuain poligonoa 3. pabilioia, USURBIL
Tel./Faxa: 943 376415 • Mobila 687 845597



URTEKARIA, ABENDUAREN 29AN

Komertzio bat daukazu eta bertan
parte hartu nahi duzu?

Jar zaitez gurekin harremanetan!

publizitatea@ttakun.eus • 943 37 14 48 (106) • 646 82 44 66



ZORION AGURRAK



Izar
Izar bost urte! Denok joango gera poz-pezik zurekin ospatzera! ZORIONAK eta muxu asko denon partetik!



Manex
Zorionak Manex. Txokolatezko muxuak etxekoan partez. Maite zaitugu.



Jaione
Zorionak inuxente-inuxente!! Ondo pasa zure egunean eta datorren pintxo-potean.... txin-txin!! (Egitan e!).



Unai
Zorionak maitia! Mila muxu handi zure 12. urtebetetzean, Oier, aita, ama eta familiakoan partetik.



Aitor
Zorionak Aitor!! Azkenean iritsi dira zure 18ak!! Besarkada handi bat Fierutxoren partez. Primeran ospatuko dugu!




Arkaitz
Zorionak Arkaitz! Oso ondo pasa, zure amaren eta osaba Rafaelen partetik.



Markel
Zorionak Maitia, bost urte puska dagoeneko. Zure familiak asko maite zaitu, eta egun polit bat izan dezazula opa dizu. Festa handi batekin ospatu!! Zorionak!!




Arkaitz
Zorionak!! Aitaren eta familia osoaren partetik. Asko maite zaitugu.




Nerea
Zorionak bihotza!! 8 urte zoragarri gure artean. Jarraitu irrifar polit horrekin. Muxu handi bat familiaren partetik.




Maider
Zorionak etxeko gaztekoenarentzat. Muxu potoloak denon partez.




Gorka eta Unai
Muxu asko Gorka eta Unai, zuen zortzigarren eta bederatzigarren urtebetetzean, zuen aiton-amonon partetik.



Oier
Urtebetetze eguna oso gertu duzu Tori opari gisa mila milioi muxu Familiako guztiak poz-pezik gaituzu Urte askotan Oier izan zoriontsu!!



Araitz
Zorionak gure etxeko sukaldariarentzat!!! Muxu pottolo bat familiaren partetik.



Aitana
Zorionak maitia!!! 11 urte ederrak, Aitana!! Jarraitu bizipoz horrekin. Maite zaitugu. Muxu handi bat familiaren partetik.



Endika
Zorionak zure urtebetetzean! 15 muxu handi familiaren partetik. Ondo pasa zure egunean!

GUTUNAK

40 tona ezegonkor

TRANSPORTES PAINO S.L. ENPRESAKO ERREPIDEKO GIDARI MEKANIKOAK

0 Trafiko-istripu: Trailer batek hainbat ibilgailu aurretik eraman ditu, zauritu eta hildakoen artean adin txikikoak daude. Albiste hipotetiko hau beste zirkulazio-istripuztat hartu daiteke, baina ¿benetan horrela da? Galdera hau egiten diogu gure buruari. Izan ere, Gipuzkoako enpresa baten, presio giroan eta jazarpen jarraituan lan egiten duen gidari mekaniko talde bat gara.

Badira bi urte zuzendaritza bere lan baldintza propioak inposatzen saiatu dena eta horretarako edozein amarru edo trikimailu erabiltzen du.

Hauteskunde sindikalei boikota egiten saiatu da, honengatik justiziak zigortu du. Lan akordio bat sinatzera ukatzen da, hainbat langileen soldata atzeratu du, mantenu dieten ordainketa hiru hilabetez atzeratu du zenbait kasutan, behin eta berriro zigor-espeditenteak irekiz, langileei geldialdiei buruzko azalpenak eskatzen deiak eginez, nahiz eta geolokalizatuak egon, trailerretako telefonoetara hainbat mezua bidaltzen eta erantzun ezean deia eginez. Enpresaren egoitzetik kanpo gidariak ezbeharrak izan eta laguntza medikoari abixua geroratu dute eta azken egunetan, taldean gidariak jasartzen dituzte.

Honengatik guztiagatik aldi baterako ezgaitasun egoeran dago langileen zati

bat eta, lanean daudenak antsietate eta tentsio maila handia dute eta edozein momentutan istripua izan dezakete. Hau, ziurrenik, trafiko-istripuztat hartuko litzateke.

Dagozkien agintari eskudunak (Lan-ikuskaritza, Osalan eta mediku-ikuskaritza) egoeraren berri dute haien eskuetan dituzten txosten zabalaren bitartez.

Transportes Hermanos PAINOS S.L. enpresako gidari mekanikoek eskaera bat dugu, gutako norbaitek gure lan profesionala egitean istripuren bat izanez gero, hori trafiko-istripu soiltzat ez hartzea. Norbaitek enpresako zuzendaritzaren aurka egitea eskatzen dugu eta legeak haiengan eragin dezala, haiek baitira istripuaren erantzule.

JAIOTAKOAK

Aran Olano Boixados. Abenduaren 15ean.

HILDAKOAK

Francisca Ramos Fernandez. Abenduaren 19an.
Iñaki Echeverria Aldalur. Abenduaren 19an.
Milagros Tejeria Amunarriz. Abenduaren 18an.
Jose Ramon Aduriz Quintanilla. Abenduaren 16an.
Iciar Erdocia Salaverria. Abenduaren 15ean.
Adela Cobo Fernandez. Abenduaren 15ean.
Blas Moriana Ruiz. Abenduaren 14an.
Juan Jose Zubiria Telleria. Abenduaren 14an.
Tomas Ibañez Pelaez. Abenduaren 13an.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Ostirala, 22 ACHA-ORBEA
Larunbata, 23 GIL
Igandea, 24 GIL
Astelehena, 25 GIL
Asteartea, 26 ORUE
Asteazkena, 27 GANDARIAS-URIBE
Osteguna, 28 DE MIGUEL

EGUNEKO FARMAZIAK: 9:00-12:00
ORUE: Jaizkibel plaza 2/ 943 36 26 52
ACHA-ORBEA: Hipodromo et. 6/ 943 36 35 49
DE MIGUEL: Kale Nagusia 32/ 943 37 11 51
LASA: Kale Nagusia 42 atzea/ 943 36 17 74
GIL: Kale Nagusia 24/ 943 36 15 29
URBISTONDO: San Frantzisko 1/ 943 36 65 67
GANDARIAS-URIBE: I. de Loyola 9/ 943 01 95 21

GAUEKO FARMAZIA: 22:00-9:00

Echeveste Elozegui: Elkano Kalea 9, Hernani/ 943 55 20 87

Gipuzkoako farmazien eskuko telefonorako 2017ko egutegia eskuratzeko, bidali FARMA 215800 zenbakira. Gehienezko kostua 1,7 euro + WAP deskarga, operadorearen arabera (www.cofgipuzkoa.com).

TELEFONOAK

UDALAREN TELEFONOAK:
ERREGISTROA: 943 371 629
EUSKARAKO ZERBITZUA: 943 376 184
KIROLDEGIA: 943 376 182
MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA: 943 376 181
GIZARTE ZERBITZUAK: 943 376 179
KIUB: 943 361 605
UDAL EUSKALTEGIA: 943 361 621
MUNTERI AEK: 943 372 863

LARRIALDIKO TELEFONOAK:
OSASUN ZENTROA: 943 007 960
DYA: 943 464 622
GURUTZE GORRIA: 943 363 953
UDALTZAINAK: 943 362 442
ERTZAINAZA: 943 538 840
SOS DEIAK: 112

AZOKA TXIKIA

ETXEBIZITZA

ERRENTAN EMAN
Ainhoa taberna alokatzen da Lasarte-Orian. Kokaleku ona. 691 646 204.

Auto eta motoak gordetzeko garaje marra alokatzen da, Esperantza plazan. 659 021 945

ERRENTAN HARTU
Alokairuko etxe baten bila nabil. Nahiago dut Lasarte-Orian, baina Zubietan edo Usurbilen ere izan liteke. 630 682 716.

Etxe txiki baten bila gabilta. 603 194 658

LANA

ESKAERA
Pertsonak zaintzeko eskaintzen dut neure burua. Ana Belinda Navarro. Telefonoa: 620 607 184.

Lan bila nabil (arratsaldetan). Jostuna nabil, baina etxetz-etxeko zerbitzuan ere esperientzia badut. 689 103 340.

Pertsona helduak zainduko nituzke orduka, egun osoz, gauez edo asteburuetan. Garbiketa lanak ere egingo nituzke. Esperientzia eta erreferentziak ditut. Telefonoa: 671 763 558

33 urteko neska euskalduna. Haur, nagusi edo laguntza behar duen edozein pertsona zaintzeko prest Tolosaldea bailaran. Telefonoa: 625 70 98 39

Pertsona zaharrak edo haurrak zaintzeko, eta garbiketarako eskaintzen dut neure burua. Telefonoa: 637 160 734

Emakumea eskaintzen da interna modura pertsona adinduak edo etxeko lanak egiteko. Telefonoa: 671 908 616

HEZKUNTZA

ESKAERA

Pertsona bat behar dugu oposizioak prestatzen laguntzeko, Osakidetzako mantentze lanetarako. 679 560 170



AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKENA ARRATSALDEA BAINO LEHEN.

OSTIRALA 22

LASARTE-ORIA Haur parkea

Haur eta gazteek Gabonetako Haur Parkeaz gozatu ahaliko dute.

Ekintza berezia izango da egun honetan: Mikel Susperregi ipuin kontalaria izango da, 19:00etan.

Michelin Udal Kirolgunea, 11:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara.

LASARTE-ORIA Kontzertua

Danak Kide elkarteak antolatzen dituen Musika Topaketan barruan, Ana Garcia organo joleak eta Amaya Arberas sopranoak emanaldia eskainiko dute.

Brigitarren komentua, 19:30ean

LASARTE-ORIA Emanaldia

Abenduaren 30eko Harresi Guztien Gainetik Errezitaldiaren aurrerapen moduan, *Hitz-musikatuak* saioa egingo da.

Furia Beltza, 20:00etan

LARUNBATA 23

LASARTE-ORIA Haur Parkea

Haur eta gazteek Gabonetako Haur Parkeaz gozatu ahaliko dute.

Michelin Udal Kirolgunea, 11:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara.

HERNANI Gabon kontzertua

Gabonetako kontzertua, Ozenki abesbatza eta Hernaniko Musika Bandaren eskutik.

San Joan Bataiatzailearen eliza, 20:00etan.

IGANDEA 24

LASARTE-ORIA Haur Parkea

Haur eta gazteek Gabonetako Haur Parkeaz gozatu ahaliko dute.

Michelin Udal Kirolgunea, 11:00etatik 14:00etara.

LASARTE-ORIA Gabon errondak

Ohiturari jarraikiz, hainbat elkarte eta taldek Eguberri bezperako erronda egingo dute herritarrak alaituz.

Lasarte-Oriako ikastetxeetako haur eta gazteak, gurasoek eta Ttirriki Ttarrakako kideek lagunduta,



LASARTE-ORIA Olentzerori ongi etorria.

Lasarte-Oriako haur eta gazteek, Olentzerorekin egoteko aukera izango dute. Ikatzkinak mendia utzi eta herrira jetsiko baita etxeko txikiak eskutitzak jasotzeko. Loidibarrengo pilotalekutik irten eta Lasarte-Oriako kaleetan barrena ibili ostean, Okendora helduko da. Berarekin batera izango dira Xixuko, Porrotx eta beste zenbait gonbidatu berezi ere.

Loidibarrengo pilotalekuan, 17:00etan

Jaizkibel plazatik abiatuko dira, 11:00etan.

Zabaletako bizilagunak, berriz, 10:00etan abiatuko dira Antonio Blas plazatik. Auzoko etxe eta baserriak bisitatu ostean, 12:30ean Mari Domingiren bisita jasoko dute. Honek aurten jaiotako haurrei ongi etorria egingo die.

Alboka abesbatzak ere egingo du Gabonetako urteroko erronda. Atsokabarreko egoitzatik irtengo dira, 16:30ak aldera.

Erketz Euskal Dantza Taldea ere aritu da errondan herriko baserrietatik barrena.

LASARTE-ORIA Harrera jaialdia

Lasarte-Oriako kaleetatik kale jira egin eta Okendo plazan Olentzero, Mari Domingi eta Xixukoren etorrera jaialdia egingo da. Ondoren, haurren eskutitzak jasoko dituzte.

Lasarte-Oriako kaleak, 17:00etan

LASARTE-ORIA Bertso brindisa

Artizar tabernatik abiatuta, Bertso-brindis ibiltaria egingo da.

Lasarte-Oriako kaleak, 19:30etik 20:30era

ASTEARTEA 26

LASARTE-ORIA Haur Parkea

Lasarte-Oriako haur eta gazteek Gabonetako Haur Parkeaz gozatu ahaliko dute.

Michelin Udal Kirolgunea, 11:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara.

ASTEAZKENA 27

LASARTE-ORIA Haur parkea

Haur eta gazteek Gabonetako Haur parkeaz gozatu ahaliko dute.

Ekintza berezia izango da egun honetan: *Begira festa* antzerki izango da ikusgai, 19:00etan.

Michelin Udal Kirolgunea, 11:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara.

LASARTE-ORIA Kontzertua

Ane Artetxe, Maria Llanos eta Raquel Ortega Donostiako Aiete auzoko musika eskolako irakale harpa-jotzaileen trebetasunaz gozatu ahaliko da.

Brigitarren komentua, 19:30ean

OSTEGUNA 28

LASARTE-ORIA Haur Parkea

Haur eta gazteek Gabonetako Haur parkeaz gozatu ahaliko dute.

Michelin Udal Kirolgunea, 11:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara.

LASARTE-ORIA Zine-foruma

Okendo zinema taldearen eskutik, *50 primaveras* filma ikusgai. Sarrera, 5,50 euro.



LASARTE-ORIA Gospel kontzertua.

Aurreko urteetan herrian egin diren Gospel kontzertuek izan duten arrakastari heldu asmoz, aurten ere America's ladies of gospel taldea izango da kultur etxeko oholza gainean. Erritmo alaiak osaturiko musika emanaldia eskainiko du taldeak. Sarrerak erosi beharko dira, kultur etxean, 5,50 euroren truke.

Manuel Lekuona kultur etxea, 18:30ean

Manuel Lekuona, 22:00etan.

OSTIRALA 29

LASARTE-ORIA Haur Parkea

Lasarte-Oriako haur eta gazteek Gabonetako Haur Parkeaz gozatu ahaliko dute.

Michelin Udal Kirolgunea, 11:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara.

LASARTE-ORIA Gospel

kontzertua

Azken urtetako arrakasta ikusirik, gospel kontzertua izango da. America's ladies of gospel taldea izango da oraingoan oholtzan. Sarrera, 5,50 euro.

Manuel Lekuona, 20:00etan

LARUNBATA 30

LASARTE-ORIA Haur Parkea

Haur eta gazteek Gabonetako Haur Parkeaz gozatu ahaliko dute.

Ekintza berezia izango da egun honetan: *Patata tropikala* antzerkia izango da ikusgai, 19:00etan.

Michelin Udal Kirolgunea, 11:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara.

LASARTE-ORIA Sari banaketa

Danak Kidek antolatzen duen Jaiotzen Lehiaketako sari banaketa egingo da.

Danak Kide egoitza, 12:00etan

LASARTE-ORIA Errezitaldia

Espetxeetatik jasotako testuekin Harresi Guztien Gainetik VIII. Errezitaldia osatuko dute. Herriko errepresaliatuen hitzak entzuteko sortutako ekimenak kultur espresio ezberdinak oholtzaratuko ditu.

Manuel Lekuona, 19:30ean.

IGANDEA 31

LASARTE-ORIA Haur Parkea

Haur eta gazteek Gabonetako Haur Parkeaz gozatu ahaliko dute.

Ekintza berezia izango da egun honetan: Eguberriko haur parkearen itxiera, Agurra dantza eta beste zenbait joko, 12:00etan.

Michelin Udal Kirolgunea, 11:00etatik 14:00etara.


OSTIRALA 5

LASARTE-ORIA Errege Magoak

Meltxor, Gaspar eta Baltasar Lasarte-Oriako kaleetatik barrena ibiliko dira. Eguerdian, ekintzak izango dira, eta Errege Magoen laguntzaileek haurren eskutitzak jasoko dituzte.

Arratsaldeko 16:00etan iritsiko dira herrira Errege Magoak, eta 17:30ak arte, Brigitarren Komentuko kaperan egongo dira eskutitzak jasotzen.

Ondoren, 18:00etan, kabalgata. **Lasarte-Orian, 17:30etik 20:30era**



2018 zoriontsua
opa dizuegu!



ILLARRETA

ITURGINTZA ETA IGELTSERITZA



ERAKUSKETA, DENDA ETA BULEGOA

Geltoki kalea 21 - Lasarte-Oria
Tel. 943 36 31 47 eta 943 36 17 52

- Zink, berun eta arbelean eraikuntzak eta konponketak
- Instalazioak: garbitzeko ura, berogailua, gasa, zoru bero-emailea eta aire girotua
- Erakusketa eta salmenta: aparatu sanitarioak, kanilak, komuneko altzariak, manparak eta osagarriak

info@illarreta.com



TAILERRA


Oialume Bidea, 24 - Astigarraga
Tel. 943 33 17 54

- Igeltseritza orokorra
- Etxebizitzen eta lokalen berrikuntza osoa
- Gremioen koordinazioa
- Arreta pertsonalizatua



Eguberri on eta 2018 zoriontsua opa dizuegu!

Balardi Harategiak



Bertako haragia eta artisau urdaitegia

LASARTE-ORIA

Kale Nagusia 36-38 • Tel. 943 37 04 46

Geltoki kalea 19 • Tel. 943 37 65 85

Kale Nagusia 50 • Tel. 943 36 36 11

HERNANI

Izpizua kalea • Tel. 943 33 42 82

URNIETA

Idiazabal kalea 17 • Tel. 943 00 81 69

DONOSTIA

Birmingham behea 31 • Tel. 943 28 23 23

MERKATUKO HIPOTEKA-MAILEGU
AUKERA GUZTIAK EZAGUTZEN DITUZU?

PASATU AL ZARA BANKOIA CRÉDIT AGRICOLETIK?

Bankoia Crédit Agricolen hipoteka-mailegu aukera ezberdinak dituzu, zure egoera pertsonalari hobekien egokitzen zaiona aukeratu dezazun: tipo aldagarria, tipo finkoa edo tipo konbinatua. Hiru aukera ezberdin, oso leihakorrak, zure etxea erosi aurretik ezagutu beharko zenituzkeenak. Oraindik ez baduzu egin, pasatu zaitez Bankoia Crédit Agricoletik eta argitu itzazu zalantzak.